

ARRASATE ^{PRESS}

1992ko abenduak 4

173. zenb.

1807

1813

Frantzesak
Arrasaten

Elkarrizketa
**Mari Luz
Esteban,**
emakumearen
osasunaz



Gorostiza (Uribarri)

Esan geike etxe hau Mundraueko zaharrena edo zaharrentarikue dala. Torretxie izendakue da bere estruktura eta saterak erakusten duskuen moduen, eta segurutik XV. gixaldixen Euskal Herriko beste torretxe batzu moduen hau be moztu ingo euen, erregien aginduz.

14 metro luze eta zabal dauko etxiek, eta bere hormak metro eta 20 zmtako sendaerie dauke. Gaur be saterak bistan dittu ondion eta beste batzuk leiho bihurtute. Honeik ateratie egundo-ko lana kostau zan.

Gaur egun Gorostizan bizi dan familixie izen zan etxe honen sortzailie. Bertan bizi dienak Salome Elkorobarru-



tia, Tauleronekue izetetz, eta bere alaba Ione Bergaretxie die.

1.700 urte inguruen Mundrauen ohittura zan Asentzio egune baino lehenau errogatiba prozesinuek eittie. Hon-

taiko bat etxe honetatik pase-tan zan, sartu ate batetik, bertan euen kapilan elizkizunek ein eta urten beste atetik.

Gorostiza baserrixie monumentu historiko deklarertako tramitiek oso aurreratute

daz.

Azkenaldi honetan etxi hau baserriko lanei lotute egonda.

Batez be ezaunek die bertan eitten dittuen lora sorta ederrak.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

GATZAGAn

erdi erdian...

ZUHAITZ jatetxea

ARAMAIO
okindegiaMaisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46


EQUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Memesa

79 42 22

Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Gose-greba, gezur hutsa!

Bost urte t'erdi iragan dira jada lehenbiziko espetxearen hatzapar zorrotzak gertutik ikustea egokitu zitzaidanetik. Makinatxo bat autobuskadetan ateratzen ginen orduan, orohar Espainiako bazter zehatzetara. Ordu eta barriketa ugari autobusetan, Don Quijoteren lurralde haietaraino. Familia apurtuak ikusi nituen, seme espetxeratua bisitatzen ez zuen aita, seme edo alabaren egoeran banandutako senar-emazteak, urte luzeetan aitaren ferekarik jaso gabeko haurrak, 40 asteburutan jarraian La Mancharaino abiatzen ziren senideak...

Alabaina, sufrimenduz bat, berotasuna eta elkartasuna. Dagoeneko errepide edo abioiaren bakardadean, horretarako eskubiderik ere ez dugu euskal preso politikoen senideok. Espainian zehar barreiatu dizkigute gure senideak. Zenbat istripu -heriotzak ere izan dira- maite ditugun pertsonen irrifarrea gehien jota 40 minutuz dastatzeko; zenbat diru eta denbora (Kanariar Irlertara bidaiaria eta egonaldi artean, aste-bete guztira, 100.000 pezeta); zenbat...

Tira, euskal preso baten senidea izatearen patua. Norbaitek badaki guzti horrek min egiten diola presoari, eta beste neurri askoren artean, senideon sufrimenduz baliatzen da.

Baina, a ze bakea hori bakarrik balitz, gu behintzat "pozik". Ez, ez da nahiko -zuzenbidezko estatuak agintzen duen moduan- askatasuna kentzea. Presoari duintasun izpi meharrena ere ezabatu behar zaio, hori da espainiar agintarien goreneko irizpidea. Ezin diegu/digute euskaraz normaltasunez idatziz, ikasteko egundoko arazoak, jipoiak -bai,

j-i-p-o-i-a-k, isolamendua, etengabeko kaxeoa, gau osoa argia piztuta, bisitara joan eta bisitarik ez, arratoiak zeldan...

Ah, gizagajuak sinistu didazuenok! Gezur hutsa da Jesus Mari Zabarte lau astetako gose-greba guzti hori salatzeagatik egiten ari dela. Gezur hutsa aurtengo hirugarren gose-greba dela. Hiltzen bada edo giltzurrun galtzen badu ere, gezur hutsa. Betikoen joku eta trikimailuak. Datorren astean, astero letxe, Espainiarantz aterako gara. 20 ordu bolantean egin ondoren, gezur ugari asmatu eta ekarriko ditugulakoan nago.

XABIER LETONA,
"ATAXI"



ARTIKILU

• ARRASATE PRESS •


Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40
Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Bernardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantza Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azalako irudia: Garaiko ilustrazioa.



ZENBAKI
Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39



ITURRIOTZ

taberna
Girorik
jatorrena!

Tfnoa: 79 16 04



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!

Alkoholiko
Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

••••

Santa Barbarako parkeaz

Niskanaka piskanaka Santa Barbarako Parkeak daraman prozesua ikusten ari naiz, eta egiten ari diren lanarekin benetan nago harrituta, edozeinen mirespenera merezi izateko modukoa, benetan polita.

Baina benetan nik ez dut onartzen, (eta horregatik idazten dut), alde batetik lan ona egiten ari diren bitartean, beste ganberro basati kuadrila batzuk hainbeste ilusioz egiten dena apurtzera joatea.

Santa Barbara tontorrean txabola antzeko bat egin dute, komunak edo direla dirudi, eta apurka apurka apurtzen ari dira: lehengo leiho bateko kristala, gero lauak; barrutik, ohol batzuk jarri zituzten babesteko, baina lortu dute haiek apurtu eta barruan zer dagoen ikustea ere.

Kamara bat hartu eta argazkiak ateratzera gonbidatzen zaituztet, eta txabola horren hormak errespetorik gabeko marrazki, hitz gogor eta abarrez markatuta dau dela esatera, penagarria benetan.

Harrizko mahai eder batzuk ere egin dituzte, eta koloretako rotuladoren egindako marrazkiak beteta daude, eta ez dago eskubiderik horrelako txikiziorik egiteko.

Beharbada oker egingo naiz kritikatzera, baina adierazpen askatasuna zilegi dela esaten dutenez, eta

gainera hau argitaratu eta hori egin dutenek Arrasate Pressen ikusten badute, arrazoia erabili eta obra guztia errespetatu egingo dute agian.

Herri bakoitzak merezi duena duela esan ohi da, baina horrelako jokaerekin, Arrasatek ez du horrelako parkerik merezi.

Miren Gastañares
Luco

••••

Euskal Telebista Haundia

Azaro honetako 5ean, Baionan, Fakultatean, hogeitahamar bat lagun bilduak. Gaia: "Mugazgaindiko" telebista baten proiektua. Zeudenak, entzuletan abertzale militante batzu, etzeudenak Iparraldeko alderdi gehienak nahiz frantsesak, nahiz abertzaleak. Entzuletan, irrati, unibertsitate, telebista jendea gehinbat: Gure Irratia, Ziberoko Botza, Fr 3, Radio-France, EITB-ekoak. Prentsatik Sud-Ouest, Egunkaria, Maiatz, Herria eta Euskaltzaindikoak.

Bai kultura gaiek ez dituzte politikeroak biltzen edo behintzat zuzendariak, Hegoaldeko senadore bat eta diputatu bat izan arren. Iparraldean, betiko legean, kulturaz mintzo garenean politikeroak eskas.

Zer da oinarriz Telebista, euskal telebista haundi honen helburua, egingaia. Lehenik, Nafarroa, Iparraldea, eta EAE bat egitera. Bigarrenik, kalitatearen hobetzeko eta bakoitzak lekerenarekin euskara hitzeginaren batasuna lortzen ezpada ere, hurbilketa baten egitea, elkar uñer dezagun. Hirugarrenik, Iparraldeak %10 diru balekarke, %10 langile lituzke eta % hamar programa egin: berdin Nafarroak, eta EAEn ekarpena gutxitu barik, hobekuntza alde guztietatik erdietsi genezake. Ametsa dela? bai, baina amets eroagoak eraman ditugu, Ikastola, Irrati libreak, Iparraldean. Egia aitor, oraingoan, diru meta haundiagoa gure agintariengandik jaso behar genuke haundirik erakutsi. Ea noiz?

Txomin Peillen

OHARRA

Zubia dela eta,
datorren astean ez
da ARRASATE PRESSIK
kaleratuko.
Ondo pasatu jai
egunak; hurrengo
asteen berri zuen
etxean izango
gara.

FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30
ARRASATE
Tfnoa: 79 57 20

Zeure burua arrazistatzat daukazu?



**Fernando Molinero
Langabetua (36 urte)**

Ez, ez naiz arrazista. Izan ere, ume bat adoptatzera joan ginenean, arraza desberdinekoa izatea axola zigun galde-tu ziguten eta ezetz erantzun genien.



**Lurdes Urrizalki
Etxekoandrea (48 urte)**

Ez. Nire etxe parean beltz batzuk bizi dira eta oso jatorrak dira eta ondo konpon-tzen gara gainera.



**Dori Ginaldo
Etxekoandrea (37 urte)**

Ez, orokorrean ez, baina kasu bakoitzean ikusi behar da. Oraingoz ez dut izan kasu berezirik hori frogatzeko, baina ezin daiteke esan.




**Andres Ugarteburu
Jubilatua (68 urte)**

Ez. Denok elkar eginda bizi beharko genuke. Denok bizi behar gara eta, ez dakit... Denok elkarrekin bizi beharko genuke, desberdintasunik gabe.



**Jaione Nuñez
ATSa (31 urte)**

Ez. Niretzat denok berdina gara. Kasu berezietan ez dakit, baina orokorrean ez naiz arrazista, horretaz oso ziur nago.



**Antonio Cabanillas
JMAko langilea (44)**

Ez. Jende askok esaten du lana kentzen digula baina ez da egia. Gaur gertatzen dena da lan gutxi dagoela.



**Jesus Mari Gallastegi
Langilea (34 urte)**

Ez. Gainera lana kentzen digutela esaten badute ere, arazoa ez da kanpoko jendea-rena, bertako sistemarena baizik.




**Miren
Agustinetako ahizpa**

Ez, ez nago inoren kontra. Baina lan gutxi dago eta jendea kezkatuta egotea ere normala da.

ACUVUE™

Botatzeko
lentilak

Johnson & Johnson



GARAGORRI
OPTIKOAK

Iturriotz, 29
Tfnoa: 79 16 98
ARRASATE

Bidekurutzeta, 13
Tfnoa: 76 13 73
BERGARA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguatorialdea 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 79 05 81
 Gasas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 4
 Egunez: Aurora Ruiz. Maala.
 Gauzez: Guallar. San Antonio.

Larunbata 5
 Egunez: A.M. Morales. San Andres.
 Gauzez: Estella. Matxiategi.

Igandea 6
 Egunez: Alberto Azkoaga. Ferrerías.
 Gauzez: Estella. Matxiategi.

Astelehena 7
 Egunez: S. Español. Oturriotz.
 Gauzez: Mozos. Pedro Deunaren.

Asteartea 8
 Egunez: M. Corcuera. Musakola.
 Gauzez: Camacho. Oxirondo.

Asteazkena 9
 Egunez: J.A. Irizar. Erguín.
 Gauzez: Puy. Barrenkale

Osteguna 10
 Egunez: Amezuza. Santa Marina.
 Gauzez: Guallar. San Antonio.

4 OSTIRALA

ZINEA
 "Soldado universal" (7,10)

ROCK KONTZERTUA
 Eibarko Ehun Kilo taldearen kontzertua. Arrasateko Gaztetxean. Gaueko 9etan.

AUTODETERMINAZIOAREN ALDEKO BERTSO JAIALDIA

Autodeterminazioaren aldeko bertso jaialdia. Partehartzai-leak: Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jesus Marilrazu, Jon Enbeitia, Mañukorta, Peñagarikano. Musakolako polikiroldegian. Gaueko 10etan.

JAZZ KONTZERTUA
 Zubipeko Swing taldearen jazz kontzertua. Elorrioko Kafe Atenean. Gaueko 11etan.

IKUSTEN IKASTEN ERAKUSKETA

"Ikusten ikasten" erakusketaren barruan, "Kolarearen munda" izenekoaren inaugurazioa.

AUTODETERMINAZIOAREN ALDEKO BERTSO JAIALDIA

Gaur gaueko 10etan bertso jaialdia izango da Musakolako Kiroldegian. Bertan parte hartuko duten bertsolariak honako hauek izango dira: Egaña, Jon Sarasua, Irazu, Jon Enbeitia, Mañukorta, Peñagarikano. Abertzaleok, Bai Independentziari, Herria-2000, Herrien Liga eta Euskaria taldeek antolatzen dute.

5 LARUNBATA

ZINEA
 "Soldado universal" (5,7.30,10)

MENDI IRTEERA
 Besaide Mendizale Elkarteak mendirteera Leskunera. 8an bueltatzeko. Irteera: goizeko 8.30etan Garibaitik.

6 IGANDEA

ZINEA
 "Soldado universal" (5,7.30,10)

SAN NIKOLAS EGUNA
 San Nikolas eguna. Bolo-boloa. Herriko Plazan. Eguerdiko 12etan.


BLUES KONTZERTUA
 Short Fuse taldearekin blues amerikar kontzertua. Arrasateko Gaztetxean. 300 PTA.

ZINEA
 "Soldado universal" (5,7.30,10)

SAN NIKOLAS EGUNA
 San Nikolas eguna. Bolo-boloa. Herriko Plazan. Eguerdiko 12etan.

SENIDEAK-EN MANIFESTAZIOA
 Herriko Pñazan manifestazio isila. 7etan.

BLUES KONTZERTUA
 Short Fuse taldearekin blues amerikar kontzertua. Arrasateko Gaztetxean. 300 PTA.



LEIRE

7 ASTELEHENA**ZINEA**

"Instinto básico" (7,10)

EGUNKARI FESTA

Egunkari festa. trikitilariak, Kale antzerkia, trena, e.a. Arrasateko kaleetan. Arratsaldeko 5etatik aurrera.

8 ASTEARTEA**ZINEA**

"Instinto básico" (5,7.30,10)

XIII. GIPUZKOAKO AKORDEOI LEHIAKETA

XIII. Gipuzkoako akordeoi lehiaketa eta Gipuzkoa 92 Jaialdiaren klausura. Alai Zineman. Goizeko 11etan.

9 ASTEAZKENA**ZINEA**

"Instinto básico" (7,9.30)

ARGAZKI ERAKUSKETA

"Bazterkeria eta Solidaritatea" argazki erakusketaren inaugurazioa. Harresi Aretoan.

GABONETAKO TXARTELEN ERAKUSKETA

Gabonetako txartelen erakusketak. Fagorrek antolatuta. Monterroneko Garibai Aretoa.

YOGA IKASTAROA

Yoga ikastaroa. EKIN emakume taldeak antolatuta. AEDn. Arratsaldeko 3.30etan.

10 OSTEGUNA**ARGAZKI ETA DIAPOSITIBAK**

Argazki eta diapositiba lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna. Aretxabaletako Murruxiko Mendizale elkartera bidali.

SANFRANTZISKO XABIERKO BATZARRAK

Batzar nagusi arrunta eta berezia. Gazteluondoko batzar areto berrian. Arratsaldeko 6etan.

**XIII. GIPUZKOAKO AKORDEOI LEHIAKETA**

Datorren abenduaren 8an, asteartea, goizeko 11etan Alai Zineman XIII. Akordeoi lehiaketa burutuko da. Ekitaldi berean, Gipuzkoa 92 Jaialdiaren klasusura ere izango da. Frogak asteburu osoan izango dira baina irabazleak ezagutaraziko dituen ekitaldia asteartean burutuko da. Guztira 265 partaide izango dira. Nazioarteko epaimahaia izango da eta Francisco Escudero, Juan Arzamendi eta Jose Antonio Hontorioak era hartuko dute parte. Sariak ere adinaren arabera banatuko dira eta 735.000 pezeta banatuko dira guztira.

ABENDUAREN 18RA BITARTEKO EKINTZAK

Datorren astean ez dela aldizkaririk izango eta, 18a bitarteko ekintzen errepasua ere hemen aipatzen dizuegu. Esatebaterako datorren ostiralean, hilak 11, Arrasateko Trikitixa Eskolak batzar nagusia burutuko du eta bestalde, Bergarako musika eskolako kontzertua izango da Bergarako Novedades



Aretoa.15ean, Pirineotako hartzari buruzko hitzaldia Monterronen, arratsaldeko 6etan. 18an bertan, Murruxikok antolatutako diapositiba eta argazkien lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna izango duzue.

ABENDUKO ERAKUSKETAK

Arrasateko erakusketak areto desberdinetan, abenduan zehar, lau erakusketak izango ditugu ikusgai. Monterronen, pasa den asteazkenetik gabonetako txartelen erakusketak dugu zabalik eta datorren 9ra arte egongo da zabalik. Eta gaur ostirala, "Ikusten ikastea" erakusketaren barruan "Kolorearen mundua" izeneko zabalduko da, 27ra arte zabalik egongo dena. Harresi Aretoan, berriz, 9an Bazterkeria eta Solidaritatea izeneko, 15era arte zabalik izango duguna eta 19an J. Galartaren margo erakusketak ere inauguratuko da.

INGELESA HIZKUNTZAREN AHOSKATZEA

Arrasateko Ahizke-CIMEk ingelesa hizkuntza ahozkatzeko ikastaroa antolatu du. Datorren 9an hasiko da eta 11an bukatu. Erdi-Goi mailako ingelesa praktikatu eta 5.900 pezeta oraindu beharko da. Orduetgia 2.30etatik 5.30etara izango da.



“Lanik egin barik bizi izatea amets bat da asko eta askorentzat, eta politikoek eta beste pribilegiatu banaka batzuk lortu dute errealitate bihurtzea ere, baina gainerako hilkorroi lotoa, loteria, kinielak eta elbarritasun pentsioa besterik ez zaizkigu geratzen. (...) Eta hara nondik, Lagun-Aroren eredia, hainbeste aldiz kritikatzeko duguna, batzutan justifikatuta eta bestean justifikaziorik gabe, denetik baitago, etorkizuneko eredia izan daiteke, ez kooperatibentzat bakarrik, baita gizarteko beste sektore batzuentzat ere. Eta argi gera dadila Lagun-Aron lan egiten dudalako ez dudala etxerako egiten. Denborak esango du.”

Eukeni Olabarrietak Azaroa.

TU lankide

“Euskal Irrati Telebistak 10 urte alperrigaldu ditu euskararen estandarizazioan. Hedabideetako hizkuntzaren alde kuantitatiboari begira, alde kualitatiboa barregarriro alboratu da. (...) Artistak gara ineptitudeak gehiengoaren axolagabekeria zuzitzen. Alderantziz ere bai. (...) Ea beste hamar urtean.”

Jon Sarasuak. 1992-11-24.

Egunkaria

“Arrasate ez da euskalgintzarako paradisua, beste edozein herritan egon daitezkeen oztopoak hemen ere baditugu eta. (...) AEDk fin eta umil jokatzu bere lekua egin du Arrasaten, euskararen inguruan interlokutore izatea lortu duelakoan nago, herritarren eta ‘indar bizien’ onospena eta babesa lortuz.”

Juan Luis Arexola-Leibak 1992-11-26.

egin

Zer moduz umeak hezitzeari buruzko ikastaroa?

Ondo, lau egunez garatu ditugu eta bertan hamasei gurasok hartu dute parte. Lehen egunean umea jaio eta urte bat betetzen duen arteko garaiaz hitz egin genuen; bigarrenetan bi urte bete artekoaz eta hirugarrenean hiru egin artekoaz; azkenik, laugarren egunean, bibliografiaz, jostailu eta jolasei buruz eta adin bakoitzeko laburpena egin genuen. Laburpenean, adin bakoitzean nabaritzen diren ezaugarri nagusiez hitz egin genuen eta urte batetik bestera umeak ematen dituen aurrerapausuez.

Ikastaroan izan diren hamasei pertsonetatik, hamahiru emakumezkoak izan dira eta beste hiruak gizonezkoak; horrek, garbi adierazten du hezkuntzaren zama oraindik nork daraman. Baina hiru gizonezko agertzea ez da gutxi, egia esan sorpresa handia hartu genuen.

Gurasoen kezka nagusia ezjakintasunetik dator, umeak egiten dituen gauzak normalak diren edo ez, bere adinerako ondo dauden edo ez. Jendeak umea izatea erabakitzen du, baina gero ez daki zerekin aurkituko den, umeari nola lagundu, zertarako gai den... zentzu horretan, gure gurasoen garaitik hona ezin daiteke esan aldaketa handirik izan denik. Arrasaten sekula ez da horrelako ikastarorik egin eta jasotako erantzunak gehiago egitera animatu gaitu; ia propagandarik egin barik hamasei pertsona etortzea ez da gutxi eta gainera oso jarrera onarekin, proposamenak ere egin dizkigute eta, esaterako hurrengorako apunteak prestatzea. Apirilamaitza inguruan antzerako beste ikastaro bat egingo dugu.



Arantxa Lejarraga
Umezaintzako zuzendaria



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

AUKEA sarien erabakia

Ostegun iluntzean AUKEAko eta herriko komunikabieetako ordezkariak, bilera egin zuten aurtengo AUKEA sariak erabakitzeko. Ordubeteko bileraren ondoren, Angel Garcia haltera izendatu zuten kirolari onena, Arrasate Kirol Elkartea futbol-sala "Construcciones Brues" talde onen gisa, eta ohorezko saria Joxe Errastiri ematea erabaki zuten, orain arte egindako lanarengatik. Horretaz gain, "publikoaren saria" sari berria eratu zen, ARRASATE PRESSEN bidez herritarren ustez kirolari edo talderik onena aukeratzeko.



Senideak-en manifestaldi jendetsua igande arratsaldean

Salto del Negroko gartzelan dauden euskal presoek gosegreba dela eta, igande arratsaldean burututako manifestaldian mila pertsona baino gehiagok hartu zuten parte. Manifestaldia Herriko Plazan hasi zen, eta herriko kaleak isiltasunez igaro ondoren berriz bertan bukatu. Jesus Mari Zabarte eta Salto del Negroko espetxean dauden gainontzeko euskal presoek gosegreba bukatu arte, Senideak-ek enkarteladak egingo ditu egunero eta manifestaldiak burutu igandero. Joan den igandekoa jarraian egin zen bigarren manifestaldia zen.

Iturriotz kalean eskultura apurtu

Asteburuan, eta dagoneko hirugarren aldiz, Iturriotz kalean dagoen eskultura apurtu zuten ezezagun batzuk. Dirudieenez, ekintza apurtzailea larunbatetik igandera bitarteko gauean burutu zen, hirurak eta laurdenak inguruan.

Concelo Musical eta Goikobaluren arrakasta

Larunbat gauean Concelo Musical talde espainiar-poloniarrek eta Goikobalu abesbatzak eskainitako kontzertua benetan arrakastatsua izan zen. Parrokia jendez gainezka, eta musikariek eskainitako lana maila handikoa izan zen. Ikusleek ondo baino hobeto

pasatzeko aukera izan zuten eta kontzertuaren bukaeran txalo sorta ederra eskaini zieten Concelo Musikal eta Goikobaluko partaideei.

zen eta suhiltzaleei abisu eman, baina ez zen suhiltzaileen lanaren beharrik izan, berez itzali zen eta. Suteak, lokaleko hormak beltzitzez gain, ez zuen beste kalterik eragin.

Eragindako sutea Telefonican

Igande arratsaldean, 8ak aldera, sutea izan zen Telefonicak Zaldispén duen lokalean, anbulategi inguruan. Ertzantzaren bertsioaren arabera, pertsonaren batek Telefonicako bigarren pisura igo zuen eta bertan gasoil ontzi bati su eman zion. Ertzantzaren patruila bat suteaz ohartu

Gaztainerreak Herriko Plazan

Larunbatean, AEDko gazte taldeak antolatuta, dohaineko gaztain eta ardo eta sagardo dastaketa burutu zen Herriko Plazan. Jende asko hurbildu zen AEDko gazteengana zerbait jan eta edan asmoz eta denentzat iritsi zen, AEDko gazte-

sailekoek 200 kilo gaztaina erre eta 180 litro sagardo eta 75 litro ardo banatu baitzituzten. Mokautxo eta tragoxken artean, plazan bildutakoan artean, bertsolari eta trikitilariei esker, jai-giroa nagusi.

MCCk Barakaldoko zinegotzi batzuk salatu

Kareagan Max -Center bat egiten ari da MCC. Obrak egiteko Udalaren zenbait baimen behar izaten dira, askotan lortzeko luze joaten direnak. Egoera hori ikusita, badirudi zinegotziren batzuk, PNV eta PSOEkoak, MCC taldeari dirua eskatu ziotela, tramite batzuk ez egin eta beste batzuk azkartze aldera. MCCk, ixil-ixilean ordaindu beharrean, gertatutakoa salatu eta zinegotziek egindakoa agerian jarri zuen. PNV eta PSOEko agintariek, zinegotzieren jokaera partikularra zela adierazi zuten eta hankasartzea eurek konpondu beharko zutela.

JAIOTZAK

- Sara Amaral Garcia. Azaroaren 22an.
- Ane Martinez Hernandez. 23an.
- Ruth Merino Olivenza. 26an.
- Udane Uribarren Uribe. 29an.

HILDAKOAK

- Luisa Aranburuzabala Dorronsoro. Azaroaren 25ean. 79 urte.
- Teresa Muñoz Reyman. 25ean. 88 urte.
- Daniela Aranzabal Markiegi. 25ean. 94 urte.
- Dominga Ormaetxea Ibarrodo. 30ean. 83 urte.

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskulibran
Paola Frascioni, Liseta Paolètti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ


comercial
san juan

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05



MIKEL OLABE *

Eta Gabonetako kontsumismoaz...?

Gabonak datoz. Mendebalde kontsumista honetan behalaxe helduko zaigu erosi, oparitu eta kontsumitzeko mezua: eskaparete, hormairudi, prentsa, irrati eta telebistek halako mezua igarriko digute behin eta berriro, eten gabeko lehian... "Alaitsu bizi izateko eros ezazu" da kontsigna.

Etekin ez pilatzen diren firma handien zein Maxidenden garaia da. Normalki, ezertarako balio ez duten objektu edo jostailu sexistak, zein naturarekiko erasokorrak erosi ditugu... Eta, batzuk denetik soberan daukagun artean, 3garren Munduan gogoz daude, eta baita gure inguruko hainbat sektoretan ere. Kontsumismoak, desoreka eta sufrimendua dakartza atzetik, hori bai: zilar-paperean bildurik! Modan bizi behar dugu. Beraz, hor gaude

lanaren menpe eta banketxe-ko maileguen esklabu.

Egungo kontsumo-maialak, naturaren ondasun mugatuak ahitzera garamatza: Zenbat paper botako dugu zaborretara opariak hartu ondoren?... eta papera egiteko, egurra beharrezkoa da! Zenbat zuhaitz eta zuhaixka moztuko ditugu, jai hauetan kale eta etxeetan elementu dekoratzaile izateko? Hone- la: izeia, pinua, gorostia, goroldioa... moztuko ditugu, egun batzuz txoko bat apaindu eta gero botatzeko!

Gabonetako diztirak

.....

"Ongizatea, osasuna eta alaitasuna kontsumoarekin parekatzen dira"

zakarrontzia du azken helburu. Hara botako ditugu hainbat Tona beira, plastiko, paper diztiratsu zein hondakin pilo. Dena den garai hau egokia iruditzen zaigu, hainbat zalantza azaltzeko eta horren arabera ekiteko:

- Naturarekiko sentiberatasun eskasa adierazten du "arbolatxoaren" ohiturak. Hala ere arbolatxo ipintze-kotan: Sustraidun arbolatxo erosi eta zapi umelak ipini zaindu, jaiak pasa eta gero birlandatzeko. Halaber, inguruko Udalei eskatzen diegu, utz dezatela kale eta plazak arbolatxo apaintzeko ohitura.

- Bestalde, garai hau une egokia da zabor bilketa selektiboaren garrantzia azpimarratzeko. Jada, badaude herrian zehar hainbat tokitan kontenedore ezberdinak: papera, kartoia, beira eta pilen bilketarako: Erabil ditzagun!

- Bolumen haindikoei buruz: altzari, hozkailu edo plastikoak,... Udalak edo Mankomunitateak irtenbide egokiago bat aurkitzen ez diren artean, Garagartzako DAR-era eraman!

- Elkartasunez eta oreka ekologikoa mantentzearen, ahalik eta gehien bazterreratu egun-batzutako-erosketaleloak. Eros diezaizkigun baseritarrei —orekari eusteko hainbeste egiten baitute—, bertako elikagaiak. Ahaz dezagun marketing kontsumista opariak egiterakoan. Gabonetan eros ditzagun bereziki, prezioa nabarmenki igotzen ez duten artikulua.

* EKIKO KIDEA

USTEAK USTE

BOSNIARRAK BERRIRO

Bosniarrak direla eta ez direla, makinatxo bat entzun eta irakurri dugu azken egunotan.

Benetan txalagarria iruditzen zait gaur egun oraindik pertsonok elkarri laguntzeko gaitasuna izatea, sarri askotan gizarte honetan hori galdu dela pentsatu izan baitut.

Eta Euskal Herria, eta gure bailara hain zuzen ere, beste hainbatetan bezala, prest agertu da laguntza emateko.

Pentsatzen dut guzti hori antolatzeko hainbat gauza kontutan izango zirela, hainbat zehaztasun, zer den komenigarria, zer egokia, sarri, —zergatik ez?— zer den posible eta zer ez. Eta guzti honetan, uste osoa dut, gauza bat behintzat garbi izango dela, Euskal Herrira datozela. Hau da, gure bailaran denboralditxo bat pasatu behar baldin badute, eta elkarren arteko komunikazioa izan behar baldin badugu, zein hizkuntzatan izan behar den komunikazio hori, eta eurak hizkuntza bat ikasi behar baldin badute, edota gutxienezko komunikaziorako hitz edo nozio batzuk ikasi behar baldin badituzte, hauek euskaraz izango diren zalantza izpirik ere ez dut, hori espero dut antolatzailengandik, bene-benetan sinisten baitut ez dagoela horrela ez egiteko inolako arrazoirik, eta bai, ordea, horrela egiteko arrazoi eta eskubide osoa dagoela.

AMAIJA JAUREGI-ARRABURU

LORATEGI taberna

Iturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

Berango



**Sukalde-
altzariak,
mahaiak eta
aulkiak.**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g. Gipuzkoa Etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Udala: urarena konponduta, iturri ingurua definitzeko

Juan Jose Bolibarrek urte dexente daramatza Udalako auzo-alkatetzat, beharbada horregatik beste norbaiti utziko dio laster bere tokia, "Aurreko legislaturan hasi nintzen, bigarren honetan ez nuen auzo-alkate izateko ez asmorik eta ezta gogorik ere, baina auzokoek eskatu zidaten uraren arazoa konpondu arte ez uzteko. Uraren arazoa konpontzea bideratuta dago eta laster besteren bat izango da Udalako auzo-alkate, baina ez dut kargua uzteko bat ere penarik, ni neu aspertuta egoteaz aparte, auzoan ondo prestatutako jendea daukagu eta. Hori jakiteak lasaitasuna ematen dit".

Uraren arazoa aipatu du Juan Jose Bolibarrek, auzoak dituen premietariko bat. "Sa-neamenduarekin batera, uraren gaia nahiko aurrera eramandu dugu eta baserri batena izan ezik, gainontzekoetan edan daiteke Urkuluko ura, baina hori auzokook bat egin da eta ahalegin handia egin dugulako lortu dugu.

Bestalde, zaborraren arazo konpontzeke daukagu, hona ez baita kamioirik agertzen. Astean behin kamioia etortzeko proposamena egin ziguten, baina bost bider gehiago ordaindu be-



Udala auzoa bi nukleotan dago banatuta, eta horietako batean kokatzen da Ingurugiro Eskola.

harko genuela adierazi ziguten. Zergatik kaleko jendeak beste edo gehiago ordaintzen badugu?

Azkenik, iturriaren arazoa konpontzea komenigarria iruditzen zait. Jendea egoteko toki hona izan daiteke, eta oraindik definitu barik dago hori zertarako izango den. Horrekin lotuta, jendeak hemen uzten duen zaborraren arazoa dago, hemen jende asko egoten baita eta ingurugiro mailan ere zerbait egin beharko litzateke".

Sentsibilitate eza

Urteek ematen ei dute jakinduria, eta bi legislaturen ondoren Juan Josek ondo ezagutzen du auzoen martxa. Bere iritiz Arrasateko Udalean ez dago, eta sekula ez ei da egon, baserrietako arazokiko sentsibilitaterik, "Udalak berak markatzen du gauzak nola egin eta diru gehiena zentroan gastatzen da. Udalarekin hamabostean behin biltzen gara, eta norberak esateko duena esateko edo norberari dagokiona entzute-

ko, aurretik beste guztiena entzun behar izaten da; hori ez da fundamentoa. Auzokoak lehen egun finkoetan biltzen ginen, eta orain, berriz, beharren arabera".

Udala auzoa bi nukleo txikitara dago banatuta: batean eliza kanposantuaz, Ingurugiro Eskola eta Elkartea daude; bestean, hiru taberna eta igerilekua. Auzoko hamazazpi baserrietan bizi diren 56 pertsonen gain, jende askoren topaleku bihurtzen da Udala auzoa, asteburuetan batez ere.




Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE



PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Parkea estreinatu aurretik txintxaunak erabili egiten ziren.

Santa Barbara parkearen inagurazioa

Oraingo Udal korporazioak, aurreko le-
gislaturako Hirigintza Batzordeak, Foru
Aldundiko Mendi eta Naturaren babese-
rako Saileko Aldano eta Garin ordezkariak,
Jaurlaritzako Hirigintza Saileko Maturanak
eta obrako zuzendari espero ziren gaur Santa
Barbara parkea inaguratzeko. Aipatutakoak
eguerdiko hamabietan Udaletxean bildu dira
lehenik, handik Santa Barbarara joan eta
parkea ikusi eta gero, inagurazio-ekitaldia
burutzeko.

Santa Barbarako parkea egiteko obrek
urtebete inguruko iraupena izan dute. Den-

bora horretan, aisialdirako toki bihurtu da
Santa Barbara: lorategiak, atsedenerako
bankuak, ur-putzuak, umeentzako jolas-tokia
eta tabernatxo bat jarri dituzte. Sarrera ugari
ditu parkeak: Muxibartik, Arrasate Pasea-
lekutik, Gazteluondotik, Munarretik... bai-
na gutxitu fisikoek ez dute sartzeko nahi
beste erraztasun izango, laguntza barik ezin
izango dira parkearen goikaldera joan; be-
hekaldera, berriz, sartu ahal izango dira.
Hirigintzan ziotenez, Santa Barbaran aldapa
handiegia zeuden bidexkak gutxitu fi-
sikoentzako behar bezala egokitzeko.

Errege Kabalgatarako arropak

Urtero Errege Kabalgata
antolatzen dutenak arropa
bila dabilta. Izan ere,
badirudi iazko kabalgatan
parte hartu zuten batzuk
oraindik ez dituztela
jantziak itzuli. Hori dela eta,
Errege Kabalgatako antola-
tzaileak datorren larunba-
tean, hilaren 12an, falta
diren arropa guztiak jasotze-
ko, goizeko hamaietatik
aurrera Abade Etxean
izango dira.

Bolo-boloa San Nikolas egunean

Abenduaren 6an San
Nikolas eguna izango dela
eta, urteetako ohiturari
jarraituz, Herriko Plazan
kantatzen duten haur eta
gazte guztiak bolo-boloa
jasotzeko aukera izango
dute. Horretarako, Udalak,
bi txanda jarri ditu: bata
eguerdiko 12etan hamar
urteetik beherakoentzat eta
bestea 12.30etatik aurrera-
hamar urteetik gorako
guztientzat. Normala denez,
San Nikolas kantatu behar-
ko da, bestela ez da bolo-
bolorik izango.

Umeentzako moda



Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 77 06 43 ESKORIATZA



Zazpi urtean UCEM-en 424 lanpostu galdu dira

UCEM itxi nahi izatea salatu CCOO, LAB eta ESKk

UCEMeko CCOO, LAB eta ESK sindikatuek lantegiko Zuzendaritzaren azken erabakiak salatu dituzte, ohar bat kaleratuz. Aipatutako sindikatuen ustez, Zuzendaritzak ELA eta UGTekin 6 hilabeteko Enplegu Erregulaziorako Espedientea hitzartu eta gero, UCEM Transformados Metalicos itxi eta, langileen kopurua 52ra jaitsiz, beste toki batean enpresa berria zabaltzeko behin-betikoa plana aurkeztu du. Sindikatuek diotenez, UCEMek 3R planean sartu du itxiera eta 1.050 milioi pezetako dirulaguntza eskatu dio Jaurlaritzari. Era berean, UCEMi metalurgia tradizioa utzi eta, espekulazioaren bidez, berehalako benefizioen bila aritzea

leporatu diote idatzian sindikatuok; 1988ko Bergarako lantegiaren salmenta, 1989ko Olateko Saltoak, Zigarrolako zerra eta Ekonomatoaren salmenta, zentzu horretan ulertu behar dira sindikatu salatzaileen ustez. CCOO, LAB eta ESKk diotenez, orain Transformados Metalicos itxeko arrazoia, duela urte batzuk terrenoa 35 partzelatan zatitzea da, espekulatu ahal izateko.

“1985 urtean, oraingo jabeak sartu zirenean, Arrasateko Union Cerrajeran 619 langile zeuden, gaur egun UCEM Transformatu metalikoetan 105 daude eta UCEM Cerrajeran 90; 424 langile gutxiago, beraz” sindikatuetakordezkarrien esanetan.

Begirale ikastaroa AEDn

Begirale izan nahi duten guztientzat, 18 urte beteta izateko baldintzarekin, ikastaroa antolatu du AEDk. Ikastaroa, urtarrilean hasiko da, baina oraindik zehaztu barik dago eguna. Dena dela, ordurako komenigarria da AEDkoekin harremanetan jartzea, zenbat jenderentzat eta ondorioz ze mota-tako ikastaroa antolatu jakin dezaten. Izena eman edo informazioa jaso nahi izanez gero, 79 54 46 tfnora.deitu.

Krisirik ez banketxetan

Krisia gogor eragiten ari da industrian, baita kooperatibetan ere, eta Fagorren barruan makina-herreminta eta elektretxegailuen alorrean gehienbat. MCC taldean 1992ko emaitzak uste baino okerragoak izango dira eta toki batzuetan bazkidegoan eragina izango du. Une berean ez dirudi krisiak eragin handirik duenik banketxeetan; Lan Kide Aurrezkiak, esaterako, aurtan 8.500 milioitako irabaziak izango ditu, iaz baino %7a gehiago.

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

URONDO elektrizitatea

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 71
ARRASATE

Asteartean HIESaren Eguna ospatu zen. Ekintza ugari izan ziren bertan. Arratsalde aldera hasi ziren eta 10ak aldera afariarekin bukatu ziren solidaritate egun honetako ekitaldiak. Hunkigarria da egun horrek hainbeste jende mugi izatea!



Monterroneko erakusketa aretoan "Koadro baten zertzeladak" izeneko erakusketa itxi egin da jadanik. Baina, jendeak azken eguneraino ere aprobetxatu zuen. Ikusi bestela neska kuadrila hau kuadroari begira!



Larunbatean AEDko gazteria sailak antolatuta; gaztaina eta sagardo dastaketa egon zen Herriko Plazan. Apartako giroa ikusi genuen, eta nagusi zein txikiak udazkeneko fruitu beroa jateko desiatzen. Eta gaztaineri bultza egiteko, sagardoa baino hobegorik bai ote?

San Viator ikastolan

moda desfilea izan zen

pasa den ostiralean. Jendez goraino beteta egon zen eta neguko modelo politak ikusteko aukera izan genuen. Eta zelako estiloaz pasarelan, gainera!

Pasa den astean Izas-

kun Herizek Egunka-

riako tonbolan 100.000 PTAKo saria irabazi bazuen, oraingo honetan beste bi irabazle ditugu: Jose Luis Garcia eta Bittor Arriaran. Zorionak!

Joxe Agirreurreta eta Rita

Arzamendik urrezko

eztaiak ospatu zituzten pasa den larunbatean. Parrokixan meza izan ondoren, Aretxabale-tako Taberna Berrin izan zuten bazkaria. Zorionak!

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

IZEN PROPIOAK

● Jon Salaberri,

Arrasateko HIES Ekimene-ko partaidea, "Emaidazu eskua, ez da ezer pasatzen" kanpainaren kartelaren erdiko irudia izango da.

● AUKEA sarietan:

kirolari onenarena, **Angel Garciak**; kirol talde onenarena, **Arrasate Kirol Elkarteko Futbol sala taldeak** eta ohorezko saria, berriz, **Joxe Errastik** jaso dute.

● Jose Maria Arizmendi-rieta lehiaketako sariak banatu dira. A mailan lehen saria **Mikel Amatriain** eta **Iker Txokarrak**, bigarrena **Sonia Laskurain, Ainara Maortua** eta **Ester Ortiz de Zaratek** eta hirugarrena **Amaia Ruiz Zabalak** irabazi dituzte. B mailan lehen saria **Xabier Matu-rana, Alberto Roldan, Urtzi Uribetxeberriak** eta **Andoni Urzelaik** irabazi dute.



52ko kintoek euren jai eguna ospatu zuten pasa den larunbatean. Goian ikusten duzuen bezala kuadrila polita bildu zen

bertan eta hona hemen elizatik irteten. Ondoren Casinoan bazkaldu zuten. Garai bateko kontuak gogoratzeko egun egokia.

Ganix L.E. mutikoa pasa den astelehenean autoak harrapatu zuen **Olarte kalean. Zorionez, bekokian eman-dako puntu batzuk bakarrik ditu. Pozten gara ezer graberik ez gertatu izanaz. Hala ere, gogoratu bidea gurutzatu aurretik ondo begiratu, ah! eta ka-lean kotxez ibili behar baduzu, poliki ibili.**



JABIER

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

BAZAR
TOKI ON

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Txutxumutxuak

Aste honetan, bi bikote ezkonberri aurkezten dizkizuegu: **Enrike Mendieta** eta **Izaskun Urrutia** uztailaren 31n ezkondu zirenak, eta bestalde **Patxi Etxagibel** eta **Anabel Iria** irailaren 19an ezkonduak. Zorionak!




EPELDE



EPELDE



Mertzedarien ikastetxean bosniarrei laguntzeko diru bilketa egin dute. Ikasle, irakasle eta gurasoen artean, 262.725 pezeta bildu dituzte eta pasa den asteazkenean Kutxan sartu zuten dirua. Momentua aprobetxatu nahi izan genuen argazkia ateratzeko.



Jose Rodriguez, El Salvadorreko "Credo" elkarteko zuzendari ordea, ARRASATEko zerbait sortzea da helburua. Hemengo esperientzia ezagutuz gero, bertan antzeko zerbait sortzea da helburua. Zorte on!

PUB HAIZEA

arrasate

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Hilaren 12ra arte ez da futbitorik izango Zaldibarren

Zubiaren eraginez, beste geldiune bat izango du Zaldibarko Futbito Txapelketak asteburu honetan, askoren mesederako seguruen. Izan ere, honelako txapelketa luzeak astero sakrifizio txikitxo bat eskatzen die bertan jokatzeko dutenei, eta astebeteko atsedenaldia ez zaie gaizki etorriko. Antolazaleek ere, seguruen inork baino

gehiago eskertuko dute zubia. Nahiz eta futbitoa gustatu eta gauza on bat egiten ari direla jakin, astero astero bildu, astero astero eztabaidatu eta astero astero Zaldibarren zein Iturripen egotea, gogorra izan behar du; normalean, gainera, muxu truk eta zerbaiten truke izatekotan bada, disgustoak gehienetan.

NUEVO
taberna

Bañez Doktoarea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tlfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

a taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	9	8	1	0	66	16	17
ZULOAK	9	8	1	0	38	14	17
LOS HEREDIA	9	6	1	2	45	14	13
ARRASATE KIROLAK	9	6	1	2	35	22	13
URMAY B. K.	9	5	2	2	33	20	12
AIZPUN BILA	9	6	0	3	34	25	12
DANOK LAGUN	9	5	2	2	29	22	12
BETRAYER	9	4	3	2	29	20	11
KAIXO LENIZ	9	5	1	3	32	34	11
SIBILIUS ROVER	9	4	1	4	24	21	9
BUKANAK	9	4	1	4	29	28	9
ITT	9	3	0	6	33	28	6
DRAFT	9	3	0	6	30	45	6
WHISKERIA LINDE	9	3	0	6	33	49	6
DRINK TEAM	9	0	3	6	10	34	3
GARIBAI-5 9	9	1	0	8	16	49	2
AMOZKIBAR II	9	1	0	8	18	57	2
RESACAS	9	0	1	8	13	49	1
GUZTIRA	162	72	18	72	547	547	162

b taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	9	9	0	0	40	10	18
ZIZTI-ZAZTA	9	7	2	0	41	14	16
BIZKORRAK	9	6	1	2	19	14	13
JODO FLORO	9	5	3	1	27	20	13
MOTZ	9	6	1	2	39	40	13
ZULUS	9	6	0	3	39	27	12
DIEGO ANTONIO	9	5	1	3	39	23	11
LA BANDA	9	4	1	4	25	21	9
GATZBAKUAK	9	3	3	3	22	30	9
PUBLICOOP	9	3	2	4	20	31	8
ANBOTOSTE K. T.	9	3	1	5	21	28	7
TRONKOTEAK	9	3	1	5	30	34	7
KAKAJAURI	9	2	3	4	21	31	7
LAUTHERBRUNNEN	9	2	1	6	17	38	5
ATERPE KAFETEGIA	9	1	1	7	12	26	3
BAYERN PROMESAS	9	1	1	7	16	44	3
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
KAJOI-TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	162	70	22	70	467	467	162

c taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	9	8	1	0	55	12	17
NOSKI	9	8	0	1	49	15	16
ADELAIDA-HAIZEA	9	6	1	2	43	12	13
LASO ARREGI	9	6	1	2	45	22	13
ADOBE	9	6	0	3	39	22	12
GURE LEKU	9	5	2	2	45	32	12
ARRASATE KRIST.	9	5	0	4	39	25	10
TXOKO TABERNA	9	5	0	4	27	27	10
NUEVO TABERNA	9	4	2	3	36	30	10
NAVARROS	9	4	1	4	30	34	9
AUF DEM KOFFER	9	4	1	4	21	26	9
ALPARGATA TURBO	9	3	2	4	31	33	8
GANBELAS	9	3	1	5	28	27	7
KRISKIBALDA	9	1	4	4	22	32	6
ATXANTA KE TE...	9	2	0	7	17	60	4
ALLA KUIDAUS	9	1	1	7	15	55	3
SEGUROS ORBITA	9	1	0	8	24	54	2
BALEIKE	9	0	1	8	13	58	1
GUZTIRA	162	72	18	72	576	576	162

d taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. IND. UGARTE	9	8	1	0	67	14	17
LEINTZ GARAGAR.	9	7	1	1	32	11	15
LOS DIMY	9	5	3	1	49	25	13
FOTO IMAGEN	9	5	2	2	40	23	12
POTROAK LORATEGI	9	4	4	1	33	28	12
PEPELUS	9	4	3	2	34	22	11
NOTXINGAN FLOREST	9	4	3	2	42	28	11
ZOTZ	9	5	1	3	28	36	11
MONTERREY TAB.	9	5	0	4	36	25	10
KOKKAS	9	3	4	2	23	22	10
SOLANO 7 MARES	9	4	0	5	40	33	8
SOKOAKOAK	9	3	1	5	36	40	7
ARTZANKOS UDAL.	9	2	3	4	36	37	7
OLEEE!	9	3	1	5	25	38	7
UGLYS	9	3	0	6	16	26	6
EZKINAKO HONTZAK	9	2	0	7	20	60	4
BAYERN DE LEINTZ	9	0	1	8	15	55	1
ILUNA TABERNA	9	0	0	9	11	60	0
GUZTIRA	162	67	28	67	583	583	162

Ruth **GATZAGA**
Jatetxea



Olarte kantoia, 3
Tfnoa: 79 59 57
ARRASTE

IGANDE
EGUERDIETAN ERE
ZABALIK!

**Laneko bazkariak
Lagunarteko askariak
Bikoteentzako afariak**

**Giro ona, sukalde ona eta
familiako tratua**

**GURE BEREZITASUNA:
SASOIAN SASOIKO
PERRETXIKOAK**

**Iluntz eta
Iturriotz
tabernak
ARRASATE**

BELARRIRA

◆ **Lesionatzeko beldurrez** ei dabil jendea, behintzat hori diote antolatzailleek, azken aldean jende askok aseguruari buruzko informazioa eskatzen duela eta. Zerbait gertatuz gero, zauritutakoa Eskualde Ospitalera joan eta bertan Zaldibarko aseguru duela esan beharko du, norberaren eta taldearen izena emanaz. Normalean ez da arazorik izango, baina sortuko balira Mikel Lasa aseguru etxera deitu eta kitto.

◆ **Zaldibarren** jokatzeko dutenek jai izango dute asteburu honetan, zubia denontzat da eta. Datorren asteburura arte kontzentratu eta entrenatzeko denbora eta aukera izango da.

◆ **Txapelketako batzar** orokorra, diruarekin zer egin erabakitzekoa, hilaren 16an egingo da Monterronen, arratsaldeko 7etan. Bada ez bada, komunikabideetan iragartzeaz gain, gero aitzakiarik izan ez dadin, talde bakoitzari pasako zaio bilerara agertzeko gonbidapena.

Joño! ez dauka irtenbide errazik baloi horrek, alde batera edo bestera joan, ostikada segurua. Horrelakotan nork nahi izango luke baloi izatea? Seguruen inork ere ez.

EMAITZAK

A TALDEA

Drink Team 1	Danok Lagun	6
Zuloak 5	Garibai-5	2
Bukanak 2	Kaixo Leniz	3
Betrayer 1	Argi Ibili	2
Resakas 1	ITT	6
Aizpun Bila 3	Whiskeria Linde	2
Arrasate Kirolak 1	Urmay Burger K.	4
Sibilius Rover 0	Los Heredia	6
Draft 4	Amozkibar II	5

C TALDEA

Atxanta ke te...	1	Nuevo taberna	6
Adelaida Haizea	4	Alpargata Turbo	2
Laso Arregi	4	Kriskibalda	4
Ganbelas	4	Baleike	0
Gure Leku	2	AUF Dem Koffer	0
Navarros	4	Txoko Taberna	3
Adobe F. C.	2	Alla Kuidaus	1
Noski	1	Trikiti	4
Seguros Orbita	3	Arrasate Krist.	8

B TALDEA

Mikelos 2	Bizkorrak	1	
Kakajauri 1	Zizti zazta	4	
Publicoop 1	Tronkoteak	4	
Zulus 2	La Banda	1	
Bayern promesas	3	Motz	4
Lautherbrunnen	5	Diego Antonio	4
Anbotoste K. T.	1	Gatzbakukak	3

D TALDEA


Monterrey tab.	1	Los Dimy	1
Zotz	2	Foto imagen	1
Uglys	1	Pepelus	3
Ezkiñako Hontzak	2	Potroak Lorati	8
Sokoakoak	3	Solano 7 mares	9
Oleee!	3	Iluna Taberna	0
Leintz Garagar.	7	Koxkas	1
Bayern de Leintz	1	Artzankos Udal.	4
Notxingan Flo.	4	Sum. Ind. Ugarte	8



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE



Zerkaosteta, 5
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE



ASTEBURU HONETAN

Larunbata 12

- Zaldibar**
 08.45 Bayern Promesas / Gatzbakuak
 10.00 Aterpe Kafetegia / Tronkoteak
 11.00 Zuloak / Draft
 12.00 Arrasate Kirolak / Danok Lagun
 13.00 Sibilius Rover / Argi Ibili
 14.00 Kakajauri / Anbotoste K. T.
 15.00 Noski / Baleike
 16.00 Garbelas / Kriskibalda
 17.00 Betrayer / Kaixo Leniz
 18.00 Foto Imagen / Notxingan Florest
 19.00 Adobe / Nuevo taberna

- Iturripe A**
 13.00 Bukanak / Garibai-5
 14.00 Gure Leku / Alla Kuidaus
 15.00 Oleee! / Sum. Ind. Ugarte.
 16.00 Solano 7 mares / Iluna taberna
 17.00 La Banda / Motz

- Iturripe B**
 11.00 Mikelos / Diego Antonio
 12.00 Ezkiñako Hontzak / Pepelus
 13.00 Drink Team / Los Heredia
 14.00 Resakas / Urmay Burger King
 15.00 Artzankos Udaltz / Potroak Lorategi
 16.00 Laso Arregi / Adelaida Haizea
 17.00 Jodo Floro / Bizkorrak


Igandea 13

- Zaldibar**
 08.45 Publicoop / Zizti Zazta
 10.00 Sokoakoak / Koxkas
 11.00 Leintz Garagardotegia / Los Dimy
 12.00 Auf Dem Koffer / Txoko taberna
 13.00 Uglys / Zotz

- Iturripe A**
 09.45 Aizpun Blla / Amozkibar II
 11.00 Monterrey taberna / Bayern de Leintz
 12.00 Atxanta ke te mereces / Trikiti

- Iturripe B**
 09.45 ITT / Whiskeria Linde
 11.00 Navarros / Arrasate Kristaldegia
 12.00 Alpagata turbo / Seguros Orbita

NON DAGO BALOIA?



Berriz ere, Non dago baloia? lehiaketa hemen. Hilabete honetan bi argazki jarriko ditugu bakarrik, Arrasate Press gaur eta beste bi aldiz kaleratuko da eta. Beraz, gaurko eta hamazortziko aleetan argitaratzen diren argazkiaren erantzunak ahalik eta azkarren bidali, 30erako beste 20.000 PTA ko saria entregatuko dugu eta.



6. astea

Non dago baloia?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa

**LIZARRA
taberna**

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35

Zarugalde kalean...

BRANKA taberna



Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu eta
gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

● Mari Luz Esteban

Emakumeon osasuna geure esku

Emakumearen osasunaren informazio orokorra eta menopausia zikloari buruzko bi hitzaldi eman ditu Mari Luzek. AEDko EKIN emakume taldeak ekarri du Arrasatera eta 30-40 emakume inguru bildu dira bertan.

— Emakumeok gure gorputzean jartzen dugun arreta gehituz joan da denborarekin?

— Bai, asko gainera. Nire ustez, emakumeok gizonak baino gehiago zaintzen dugu gorputza, hurbilketa gehiago dugu geure gorputzarekiko. Medikuntza aldetik ere asko aurreratu da baina ondorio txar batzuk ere izan ditu, teknika berri asko asmatu diren heinean, ondorio txarrak ere sortarazi dituzte.

— Gaixotasun berri asko sortu da?

— Bai, nahiko gaixotasun berri sortu dira eta txarrena minbizia da. Emakume gazte asko ari da hiltzen horren ondorioz eta hiltzen ez direnek ere oso txarto pasatzen dute, oso tratamendu gogorak eta luzeak pasatu behar izaten dituzte eta. Horregatik nahiko gaixotasun larria kontsideratzen dut. Horretatik, aparte,

uste dut emakume guztiok oso medikalizatuta gaudela, gizonen baino gehiago afektatzen digu. Medikuek eta osasun sistemarekin menpekotasun hori izateak, ondori txarrak ekartzen dizkigu, norberaren autonomia mugatzen duelako.

— Plangintza familiar batetan egon zara lanean, zein da horren helburua?

— Zortzi urtez egon naiz Basauriko plangintza familiarrean lanean. Osasun sistemak betetzen ez duen funtzioa betetzen da plangintza hauetan. Sexualitatea, antisorgailuak, eta ginekologiari buruzko informazioa zabaltea da helburua, prebentzio mailan. Denborarekin instituzionalizatu egin da, konkretuki zentru honetan Osakidetzak hartu baititu plangintzaren konpetentziak.

— Instituzioetatik zelako ardura dago gai hauetaz?

— Gauzak aldatuz doaz baina hala ere, jartzen den ardura ez da nahikoa. Ginekologia zerbitzuetan nahiko zerbitzu gutxi eskaintzen da oraindik. Dirudunek aukera gehiago dute, zerbitzu pribatuara zuzentzen direlako, baina hori ez da irtenbidea besteontzat. Baina esan du-



dan bezala, oraindik gauza asko daude aldatzeko. Teoria mailan badirudi, nahiko hobetu direla gauzak baina praktikan hutsune asko daude, batez ere gazteen mailan. Segun ze kasutan minimo batzuk jartzen dira bakarrik. Beste batzutan, haurdunaldian adibidez, nahiko aurreratu dago emakumeari ematen zaion arreta: asasketak, ariketak eta baita informazio aldetik ere.

— Feminismoak zer aportatu dio emakumearen osasunari?

— Batez ere osasun mailan ditugun hutsuneak markatu ditu feminismoak. Emakumeon ahotsa mahai gainean jarri dute eta era berean emakume artean dauden desberdintasunak ere marka-

tu dituzte. Emakume denok ez gara berdinak eta horregatik zerbitzu bereziak behar dira bakoitzarentzat: emigranteak, gazteak, jubila-tuak... Azken finean, emakumeon protagonismoa eta ahotsa entzutea lortu du feminismoak. Bestalde, zientifikoek egin duten lana ere berreskuratu dute. Sexologian burutu diren lanak hartu eta emakumeen iritziekin lotuz, gauza positiboak eskuratu ditu.

— Menopausiak, zelako eraginak izaten ditu emakumeengan?

— Gai horretan oso inportantea da informazioa zabaltea. Egia da gero eta gehiago lortu dela arlo horretan baina beharbada ez nahikoa. Menopausia mitifikatu egin da, alde batetik medikuek diote tratamendua behar dugula, gaixotasuna dela eta. Baina, zikloaren pausu bat da. Sintomak honako hauek dira: sofokoak, osteoporosia eta maginarene lehortasuna.

● **“Feminismoak osasun mailan ditugun hutsuneak mahai gainean jarri ditu, aurrerabideari lagunduz”**

Frantziarrak eta arrasatearrak aurrez-aurre

Beñardo Kortabarria

“Arrasate frantziarren okupazio garaian, 1807-1813” izenburupean, Arrasate Zientzia Elkar-teak bi urteko lanaren ondoren, 837 orrialdetako lan mardula aurkeztu zion Udalari orain denbora gutxi. Lan horri esker, herriko historiaren garai berezi baten egunerokotasuna berreskuratu da, Arrasate ustekabea eta borrokatu barik Napoleonen inperioaren hatzamarretan harrapatu zutenekoa.

BI URTEKO LANAREN ONDORIOA

Jabier Balanzategi, Jose Angel Barrutiabengoa, Jabier Egiara eta Iñaki Olaizola, izan dira Juan Luis Aranbarri eta Jesús M. de La Fuenteren laguntzarekin, “Arrasate frantziarren okupazio garaian, 1807-1813” liburuaren egileak; Arrasate Zientzia Elkarteko partaide dira.

Liburua egiten behar izan dituzten bi urteetan, egileek 8.000 dokumentu baino gehiago irakurri behar izan dituzte, Arrasaten bertan, inguruko herrietako eliza eta artxibategietan, Donostian,

Valladolid eta Madrilan, eta baita Parisen militarrek duten artxibategian ere. Egileen esanetan, dokumentuen bilketa eta irakurketan urtebete inguru pasa dute, eta gainontzeko denbora aukeraketa, bilera eta erredakzio lanetan.


Liburua kontsultarako erabili nahi duen edozein pertsonak, Udaletxeko artxibategian eta liburutegian aurki dezake. Era kronologikoa idatzita dago, datu eta azalpen ugariarekin, baina zenbait kasutan, gaiaren interesgarritasunak aginduta, dokumentu originalen kopiak, ere baditu irakurgai.

FRANTZIARRAK ARRASATEN

Liburua hamabi kapitulutan banatzen da. Lana era kronologikoa idatzi denez, lehen kapituluak, sarreratxo bat eginez, Carlos IV.aren agintaldia eta Erregimen Zaharraz hitz egiten du; bigarrena, berriz, Gipuzkoako okupazioaren ekintzei dagokie, argi utziz frantziarren inbasioa baketsua izan zela eta Napoleonen asmoa, Ebrotik gorako lurralde guttia Frantzia bihurtzekoa zela.


Liburuko kapitulurik zabalenean, eta arrasatearrentzat interesgarriena seguruen, 1807. urtetik 1813. urtera he-

Frantziarren inbasioa baketsua izan zen, Napoleonen asmoa Ebrotik gorako lurraldea Frantzia bihurtzea”



Frantsesen garaiko Arrasate, 1760-1850 urteen artekoa.

rrian eta inguruetan gertatutako ekintzarik aipagarrienak azaltzen dira. Urte horietan gertatutakoak asko dira eta bostehun orrialdetan aipatzen dena lau lerrotan laburtzea zaila den arren, hona hemen egoera orokorrari buruzko xehetasun batzuk eta zenbait gertakari bitxi: “Errege bidea” Arrasatetik pasatzen zen, beraz herria hornidura eta biltegi bezala erabiltzea erabaki zuten frantziarrek, ondorioz herrietarrak zeharo txirotu ziren eta agintariek urte horietan zerga ugari asmatu zuten. Inguruko herriei ere, fran-



tziarren mantenua zela eta, makina bat gorabehera gertatu zen.

Egoera, tentsio handikoa izan zen; 1808. urteko irailan, esate batera, frantziar bat zauritu zuten Bedoñaben eta urrian 3 arrasatear erahil frantziarrek; ez batean eta ezta bestean ere, ez zen errudunik agertu.

1809. urtetik aurrera, gosearen eraginez seguruen, lapur edo bandolero taldeen eragina nabarmendu zen "Errege bidean" eta frantziarrek bidertzeko zuhaitzak mozteko agindua eman zu-

Bandolero taldeen ekintzak zirela eta, makina bat lan izan zuten frantziarrek

ten. Frantziarrek, bandolero taldeen ekintzak zirela eta, makina bat lan izan zuten eta ezer gutxi lortu gainera. Askotan, lapur edo bandoleroekin nor zebilen jakiteko zentsoa inspektionatu behar izan zuten. Horretaz gain, bandoleroei nolabait aurre egiteko, "Guardia cívica" delakoa sortu zuten, eta horko partaide izateko 113 arrasatearrek eman zuten izena.

Frantziarrek, 1807. urteko urrian iritsi ziren eta 1813ko ekainean aldegin. 1809. urterako lehen desertore frantziarren berri dago eta 1812. urterako, frantziar talde batzuk hasita daude beraien herrira itzultzen; 1813. urteko ekainean aldegin zuten, baina herria jota geratu zen.

Liburuko datuen arabera, 1809. urtean, batz best, 69



Napoleon

frantziar egon ziren Arrasaten, 1810.ean 213, 1811. urtean 249, 1812. urteko lehen sei hilabeteetan 250 eta bigarren sei hilabeteetan 45, eta 1813. urtean 43 batz best.

ARRASATEARRAK FRANTZIARREKIN

Frantziarrek, Arrasaten egon ziren denboran, makina bat gorabehera izan zituzten arrasatearrekin. Beharbada aipagarriena, kanposantua zela eta ez zela sortutako arazoa izan daiteke.

Kanposantuaren historia, luzea da, eta arazoa frantzia-

rrak hona iritsi aurretik hasi zen: 1795. urtean tifus izurritea sortu arte, hildako guztiak elizan lurperatzen ziren. Izurritearen ondorioz, Iturriozko iturriaren ondoan kanposantu berria egin ei zen, gaur UCEM dagoen tokian, elizan usai txarra zegoela eta. Frantziarrek iritsi zirenean, kanposantu berria hor zegoen, baina arrasatearrek oraindik elizan lurperatzen zituzten hildakoak, kanpotarrek bakarrik erabiltzen zuten kanposantu berria. Frantziarrek, behin eta berriz eman zituzten elizan lurperaketarik ez egiteko aginduak, eta batzutan betetzen baziren ere, badirudi bertakoek ordura arteko ohiturari jarraitu ziotela.

BIZTANLEAK

Lurperatzeekin lotuta, biztanleria eta hilkortasunari buruzko datuak ere agertzen dira Arrasate Zientzia Elkarrearen liburuan. 1790-1820 urteen artean, batz best, Arrasaten 2.000 pertsona bizi izan ziren; epe horretan, bertako 1.665 pertsona hil ziren, ia %40a 10 urte bete barik.

Liburuari amaiera emateko Monterongo Kondearen erahilketaz hitz egiten da. 1816ko azaroaren 17an gertatutakoa da, Zarugalde zubian eskupeta-tiroz hil zutenekoa. Erahilketaren ondorioz, Santiago Nuarbe eta Inazio Uribesalgo atxilotu zituzten eta 1822. urtera arte espetxean egon ziren, baina badirudi errugabeak zirela.

Zer esanik ez argitaratutako liburuak orrialde eta datu asko dituela, baina jasotako informazio guztia jarri izan balitz, gutxienez 200 orrialdetako beste liburu bat argitaratzeko aukera izango litzatekeela zioten egileek, "garai hartako pertsonaia askori buruzko informazio ugari bildu dugu, baina hurrengo batean argitaratzeko asmoz utzi dugu, bandoleroen kontuak esaterako".

AUKEA Saria, kirolarien errekonozimendua

Angel Garciri kirolari onenaren saria, Arrasate Kirol Elkarte Futbol Salari "Construcciones Brues" talde onenaren saria eta Joxe Errastiri ohorezko saria ematea erabaki zuten AUKEA eta herriko komunikabideetako ordezkariak.

Angel Garcia

1988an halterofilian entrenatzen hasi zen eta 1989ean txapelketetan parte hartzen hasi. 1990. urtean Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketak lortu zituen, infantil kategorian. Hurrengo urtean, entrenatzaile barik geratu zen, Arrasateko Halterofilia taldea desagertu egin baitzen, eta ez zuen emaitza onik lortu. Aurten, berriz, bere kultura entrenatuta, jubenil mailan Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapeldun izan da. Halterofilia federakuntzakoek Joaquin Blume erresidentziara eraman nahi dute.


Arrasate Kirol Elkarte Futbol Sala

Iazko denboraldian hasi zen jokatzeko, Construcciones Brues-en babesaz. Iaz, Arabako liga ofizialean jokatu zuen lehenengoz eta mailaz igotzea lortu zuen.

Aurten, kategoria berrian, lan ona egiten ari da eta gorago ere egon daitekeela ari da erakusten.

Joxe Errasti

Hainbat urtetan kirolaren alde lan handia egiteagatik eman zitzaion ohorezko saria. Hogeitabost urte egin ditu futbolaren munduan, hamabi futbolista eta hamahiru entrenatzaile. Mondra eta Ondarroako Aurreran jokatu zuen, eta entrenatzaile titulu nazionala atera zuen lehen arrasatearra izan da. Jubilatuen inguruan lan handia egin du eta gimnasiaren bultzatzaile izan zen hirugarren adinekoen artean. Gaur egun, bihotzekoa eta buruko isuria jasan ondoren, oraindik kirola egiten du eta goizero joaten da mendira.



Joxe Errasti



Angel Garcia



Arrasate Kirol Elkarte Futbol Sala

LABURRAK

Txirrindulariak ondo Ormaiztegin

Ormaiztegi ziklo-krosean, Dorletako txirrindulariak ondo ibili ziren. Jubeniletan, Alberto Rolandek 3. postua lortu zuen eta kadeteetan, berriz, Mikel Roldan izan zen irabazlea lehen urtekoetan eta bigarren urtekoetan Sergio Frutosek seigarren postua lortu zuen.

Jasone Diaz de Gereñu munduko txapelketan

Jasone Diaz de Gereñu arrasatearra, Eskubaloiko Munduko B Txapelketan Espainiako eskubalo selekzioan parte hartzen ari da. Izugarriko lana egiten ari da Jasone. Lerro hauek idazterakoan, selekzioa erdinaletarako bidean zegoen eta prentsak zioenaren arabera, Espainiako taldearen martxa onaren arduraduna da Jasone.

Aukeratu ezazu AUKEA, Publikoaren Saria...

Aukeratu ezazu aurten, hiru sarituak izan ezik, zure ustez Arrasateko kirolari edo kirol talderik onena.

Jarri aukeratutakoaren izena txartelean eta ekarri ARRASATE PRESSERA. Kirolari onena aukeratzea zure esku ere badago.

Aurtengo kirolari edo kirol talderik onena:

BURGALES JATETXEA
Jaki goxoak eta giro atsegina
 Durana, 12
ARETXABALETA

UXARTE
 Kafetegia,
 gozotegia
 Gaez irekita!!
JO TA KE!!
 Bañez dokorea, 12
 Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

"PAL"
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

PENALTIAK

● **Aretxabaletako ziklo-kros proba sekula baino beranduago burutuko da aurten, eta gainera nazioarteko kategorian galdu du. Lasterketa abenduaren 26an izango da eta, dirudenez, kategorian galtzearen arrazoi nagusia federakuntzak proba nazioartekoa baino bigarren mailakoa izan dadin hartutako erabakia izan da. Antolatzailerik jubenil eta kadeteentzat bakarrik antolatuko dute proba.**

● **Patxi Gorosabelek asteburuan Euskadiko selekzioarekin joka dezake, selekzionatzailearen deialdian sartu da behintzat. Aurkakoa Kataluniako selekzioa izango da.**




Mondrak Galdakaoren aurka ezin berdinketa baino gehiago

Iñaki Zeziagaren mutilek ezin izan zuten, joan den igandean, garaipenik lortu Galdakao taldearen aurkako partiduan. Taldea nahiko ondo jokatzeko ari da, baina badirudi etxeko partidua irabazteko orduan zailtasunak izaten dituela. Dena dela, egoera hori ez da gehiegi arduratzekoa, talde gehienei gauza bera gertatzen zaie eta. Saillkapenerako puntu bat gehiago lortu zuten, ezin daiteke esan arrasatearrek atzerapausurik egin dutenik, baina komenigarria izango litzateke horrelakorik ez errepikatzea. Denboraldia oraindik luzea da eta gaur zuri dena bihar beltz izan daiteke.

Errepidea ala ziklo-krossa?

Biak, bakoitza bere garaian, baina biak egin daitezke. Errepideari garrantzi handiagoa ematen zaio, baina niretzat biek dute garrantzi bera.



ALBERTO ROLDAN, Dorletako jubenil mailako txirrindularia

EMAITZAK

Eskubaloia

Jubenilak: Arrasate 22 - La Salle Legazpia 21
 Juniorkak: Jauja 23 - Arrasate 20
 Seniorrak: CAF Beasain 10 - Arrasate 25
 Hurrengo partiduak
 Kadeteak: Iturripen, larunbatean 4etan CAFeren aurka.
 Juniorkak: Iturripen, larunbatean 5.15etan Zestoaren aurka.
 Seniorrak: Iturripen, larunbatean 7etan Loiolaren aurka.

Rugbya

Jubenilak: Arrasate - Irun, larunbatean Atxabalpen arratsaldeko 4etan.

Pilota

Gipuzkoako liga:
 Alebinak: Aretxabaleta 18 - Arrasate 4
 Infantilak: Aretxabaleta 7 - Arrasate 18
 Kadeteak: Aretxabaleta - Arrasate 18
 Hurrengo partiduak
 Nagusiak, Iturripen larunbatean eguerdiko 12etan, Elgoibarko Lagunak taldearen aurka.

Saskibaloia

Seniorrak: Gizezkoak, Tabirako 65 - Arrasate 81
 Emakumezkoak, Arrasate 66 - Juven 69
 Juniorkak: Renteria 74 - Arrasate 71
 Jubenilak: Gizezkoak, Andraitz 84 - Arrasate A 80
 Emakumezkoak, Arrasate A 47 - Amigos Baloncesto 49
 Kadeteak: Gizezkoak, BKL CAF 50 - Arrasate A 65 - Arrasate B 53 - Iraurgi 98
 Arrasate C 62 - Almen 60
 Emakumezkoak, Janak Donosti 50 - Arrasate A 41
 Zahor 31 - Arrasate B 41
 Hurrengo partiduak
 Juniorkak: Arrasate - S. T. Lizeoa, Musakola igandea 12.00
 Jubenilak: Arrasate A - Askatuak, Musakola larunbata 16.00
 Kadeteak: Arrasate A - Escolapios, Musakola larunbata 12.00
 Arrasate A - Juven Oleta B, San Viator igandea 12.00
 Arrasate B - Almen B, San Viator larunbata 16.00.

Futbola

3. maila: Mondra 0 - Galdakao 0
 Preferentea: San Andres 3 - Aranbizkarra 2
 Emakumezkoak: Mondra 4 - Orioko 0
 Jubenilak:
 Ohorezko liga, Mondra 1 - Elgoibar 4
 Lehen maila, Michelin 1 - San Andres 2
 Bigarren maila, Urki 1 - Arrasate 0
 Kadeteak:
 Lehen maila, Arrasate 5 - Urola 0
 Bigarren maila, Urki 0 - Arrasate 4
 Umeak:
 Arrasate 4 - Bergara 1
 Almen 5 - Arrasate 4
 Hurrengo partiduak
 Jubenilak:
 Lehen maila, San Andres - Aranako, igandea 3.30etan Atxabalpe.
 Bigarren maila, Arrasate - Eibartarrak, larunbata 3.30etan Atxabalpe.
 Kadeteak:
 Lehen maila, Arrasate - Mutriku, igandea 10etan Atxabalpe.
 Bigarren maila, Arrasate - Eibar, igandea 12etan Atxabalpe.
 Haurra:
 Arrasate - Eibartarrak, larunbata 11.30 Atxabalpe.

**“EDERTU”
 ileapaindegia**



San Andres auzoa
 Tfnoa: 79 04 28

**GIZON ETA
 EMAKUMEAREN
 MODA**



zortzi

Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

SALBERRI
 HARATEGIA-URDAITEGIA



Azoka Plaza, 22.postua
 Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE


Janariak etxean izoztea (II)

Elikagaiak euren egoera naturalean kontserbatzeari, bakteriek eragiten diote, eraldatu eta janezin bihurtzera ere irits daitekeelarik. Bakterien aktibitate horri lagutzen dioten faktore garrantzitsuenetakoa bat **temperatura** da.

0°Ctako temperaturan oso geldiro erreproduzitzen dira bakteriak, eta temperatura bajuagoetan euren ekintza hondatzailea eten eta ez diote kalterik egiten janariari. Bakteriak bezain kaltegarriak ez diren beste mikroorganismo batzuk -7°Ctan eteten duten euren erasoak. Enzimak, janarien zaporeari eta testurari eragiten diotenak, -18°Ctatik aurrera uzten dioten indarra izateari.

Janariak -30°Ctan (lau izarretako izozkailuetan) izoztu ondoren, beharrezkoa da kontsumitzeko unea etorri arte -18°C edo -20°Cko temperaturan mantentzea.

Kongelazio edo izoztea hotza intentsitatez ezartzea da, jakiak hondatzen dituzten



prozesu bakteriologiko eta enzimatiakoak geldiarazteko.

Izozketaren bidez honako hau lortzen da:

- Aldi luze baterako izozketa (hilabete batzuetatik hasi eta urtebetara arte).
- Elikagaiak izoztu zirenean zeukaten kalitateari eustea.
- Diru aldetik aurrezpen garrantzitsua, edozein mo-

mentutan, (sasoiz kanpo) kontsumitu baitaitezke urte sasoi labur batez batzen diren produktuak eta garai horretan askoz ere merkeago direnak.

• Ondo hornitutako izozkailu bat sukaldean izatea, plater freskoz osatutako aukera zabal bat eskura izatea. Ez dut esageratu nahi, baina norbere etxean "supermerkatu" txiki bat izatearen parekoa.

Bukatzeo, "gogora deza-gun izozkailuan eta ikusteko moduan, une bakoitzean barruko temperatura zein den erakutsiko duen termetroa edukitzea komeni dela. Temperatura ez da sekula -18°C baino gehiagokoa izango.


Maria Teresa Alonso
Eroskiko monitorea
(Erredakzioan itzulia)

SEAT UDALAITZ, S.A.



Hilabete honetan aukera berezia SEAT TOLEDO, IBIZA, eta MARBELLA modeluetan. Oso prezio onak. BISITA GAITZAZU

Bulegoa eta tailerra:
Musakola Auzoa, z/g
Bulegoa eta erakusketa:
Zarugalde, z/g
Tfnoak: 79 18 80 eta 79 21 25
ARRASATE



Seat Toledo CT 16 v.

Gipuzkoa: bihotz-bihotzean




Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián



Galartzako kondairak

Galartzako dorretxearen kontuekin jarraituz, hona hemen Juan Carlos Guerrak Urrexolako gertaeren inguruan Jose Mari de Arenaza Agirrebengoari jasotako kontaketa baten transkribapena, bere aitaren memeroan jaso:

“Antxina ei egozen Konde bi, bata Oñatin eta bestia Galartzan. Oñatiko Kondian gure izan eben imiñi ostatu-benta bat Urtaomendi peian, eta Galartzakoak galeraso. Orregatik bildu zirian Leintzar guztiok Galartzako Kondiaren seme bi gaz eta joan zirian oñatiarren kontra. Oneik urten euen Urrexola-Garaira

eta an euki euen izugarrizko burrukia. Arrika eta makilka bialdu zituen oñatiar guztiak, baño an gelditu ziran illik Galartzako seme bixak. Beldurrez biurtu ziran leniztarrok Galartzako Kondiaren gana, Baña onek esan ei otzen:

‘Ez ardura irabazi badozue, nire zemiak ondo ni dira’.

Oñatiarrak barriz jua ei ziran euren kondiarengana ezanez:

‘Ya han ganado los Lenizanos, pero mal ganado’.

Eta ortixek urten eben orduen ezaera zar onek:

“Leniztarra mal ganado artua ta kipulia jan da ondo nao”.

Dorretxearen inguruko lekukotza

Jesus Zuazuaren ahozko testigantza bat ere jaso nahi dugu:

“Gure aitari, Galartzako Egileor baserriko semeari (Esteban Zuazua. Galartza, 1882-1974) askotan entzundako kontuak gogoratzen ditut. Behin auzotar batzuk Galartzako eliza eta Dorretxearen alboan dagoen ‘bolalekua’ konpontzen ari zirela, almenetako harlanduak agertu zirela azpikaldean, eta berak etxea almenekin eza gutu ez bazuen ere, auzoko zaharrenei entzuna ziela aipatutako etxeak garai baten almenak eta tronerak zituela, kainoiekin tiro egiteko”.

SUTONDOAN

KAXINTO ETA NARTZO MADARIPEKO NIKOLAS ETA ARANTZAZUKO PRAILEAK (eta V)

*L*ehenengo begistatu zuten frailerari galdetu zioten non aurkitzen ote ziren, bada ezpada ere, eta honen ahotik ziur jakin zutenean non zeuden, agertu zioten hango aitaren batekin, (aita nagusiarekin berarekin al ba zen) aitortzea nahi zutela. Honek berehala aurkeztu zituen berarengana; aitortu zituen eta hiruren artean otoiztu zutenean otoitz bero bana, fraile agurgarri hark hartu zuen isopua eta bedeinkatu eta onetsi zituen, gurutzearen kristautasunezko ikurraz. Eta honela bihurtu zieten galdua zeukaten itzala eta arimako pakea.

Hurrengo egunetik bertatik euren erreguz, beste ikasleekin batera apaizgintzarako aditalbenak egiten eta hasi ziren, eta arteraino hain alper baziren ere, geroztik gutzitzeko langile, arduratsu eta santuak izan ziren.

Eta txantxetan eta benetan, zozua sasian kantetan.

(Amaiera)

ARREGITAR TIBURTZIO

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK




77 05 65

FELIPE MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Elektroinjekzio Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK


Zaldisper kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

K

uadrila handi batetako hirukotea dugu hau. 33 lagun edo ziren kuadrilan, eta hala deitzen zien jendeak gainera. Errepublikara, hala ere, banandu egin ziren, politika arrazoiak tarteko. Batzuk karlistak, besteak nazionalistak eta besteak errepublika zaleak ziren, eta harremanak eten egin ziren.

Ezkerretik hasita, **Julio Galarta**, margolaria. Erdian **Juan Mari Otaduy**, "Etxetxo", zerrajerian lan egiten zuena. Hirugarrena **Alejandro Uribetxeberria**, Frantziara alde egin eta gero han bertan hil zena. Arrasateko panaderian lanean ekindakoa Julioren esanetan.

Erretratuak 1934ean ateratakoa behar du, eta seguru asko San Juanetan, Viteri pasealekuan jartzen ziren erretratisten dekoratu artifizialaren aurrean hiru lagunek ateratakoa.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

TXITXINPE

BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak,
urdaitegia, fruitu
lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- Aretxabaletan garajea salgai Murubide plazan. Tfnoa: 79 29 19.
- Guztiz jantzita dagoen ileapaindegia salgai. Tfnoa: 79 67 12.
- Pisu osatzeko pertsona behar da Erguinen. Tfnoa: 79 71 16.
- Etxebizitza salgai Olarte kalean. Tfnoa: (947) 27 01 00.
- Pisu batean elkarbizitzeko lekurik baldin baduzue dei egizue tfno. honetara (945) 89 10 91. Monika.
- Leioako pisu baten beste lagun batentzako lekua daukagu. Tfnoa: 79 36 58.

Lana

- Furgonetadun mutila lan egiteko gertu. Tfnoa: 77 04 87. Arratsaldetan.
- Emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- OHOk klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 71 05. Miren.
- Bi neska gertu gaude etxeak, atarteak edo bulegoak garbitzeko. Tfnoak: 79 82 18 Mari Jose edo 76 06 79 Maribi.
- 30 urteko emakumea etxeko lanak egiteko,

umeak zaintzeko edo edozein lan egiteko gertu. Tfnoa: 77 06 92.

- Alemana hutsetik hasita ikasi nahi nuke. Norbait erakusteko prest balego, deitu dezala ilunkaratan 79 41 94 tfnora. Miriam.
- Klase partikularrak ematen dira urte osoan. Talde txikiak. Pertsonal espezializatua. Dei egin 5etatik 7etara 79 93 03 tfnora.
- Esperientziadun neskak pertsona nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 72 92.
- Esperientziadun txoferra C1, C2 eta D karne- tekin, lan egiteko prest. Dei egin 79 60 16 tfnora. Pello.
- Zure etxea txukuntzen lagunduko dizut. Gauzak zintzilikatu, apalak edo tendereteak jarri, kurtinen rielak jarri... edo konponketa txikiak: elektrogailuetan, altzarietan... Kontsultetarako dei egin 79 80 25 tfnora.
- OHOk klase partikularrak emango nituzke arratsaldeko 7etatik aurrera. Informazioa: 79 52 15 tfnoan.
- Edozein lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 52. Anton.
- Latinezko klase partikularrak behar ditut. Dei egin 4etatik 8.30etara. Garbiñe

Salerosketak

- Spectrum ordenadorea salgai 18.000 PTAtan. Tfnoa: 79 93 91.

- Ford Fiesta SS-P matrikuladuna salgai. 75.000 PTA. Dei egin 8etatik aurrera 76 53 59 tfnora.
- Txakur kumeak saltzen dira. Beltzak dira eta oso politak. 5.000 PTA. Tfnoa: 79 90 87.
- Ford Fiesta XR2i 16 balbulakoa salgai. SS-AN. Garantia osoa. Berria bezala dagoen Yamaha SZ-R 600 salgai. Aprobetxatu aukera! Tfnoa: 79 91 59. Xabier.

Denetarik

- Eraman alde, nahi duenak eraman ditzake Fagor markako berogailu bi eta aspiradore elektriko txiki bat oraindik ibiltzeko beste. Tfnoa: 79 05 91.
- Emakumezkoen Seiko markako erlojua galdu zait azokatik parrokiarako bidean. Topatu baduzu dei egin 79 57 58 tfnora. Saria jasoko duzu.
- Zorro urdin bat galdu zait giltzak barruan dituela. Santamaina iguruan. Tfnoa: 77 14 57. Veronica.
- Uribe auzoan mendiko bizikleta lapurtu zidaten. Motxila moduko bat neuken bertan, eta barruan giltzak eta kartera, diruaz eta karne-taz. Eraman mesedez Udaltzaingora edo deitu niri, 79 15 96 tfnora.
- Munar auzoko Kutxa eta Seat bitartean antioju batzuk galdu ziren eguen ilunkaran. Topatu dituenak dei egin dezla 79 48 70 tfnora.
- Erbi txakurra topatu dugu Degurixa aldean. Zurea bada dei egin 79 12 36 tfnora. Urtzi.

Aste Gazte

Ikastaroak

• Aisialdi ekintzetan haur eta gazte urrituentzako integrazio buruzko ikastaroa Donostian. Abenduak 22, 23, 28, 29 eta 30. Atzegik antolatua. Matrikula: 7000 TA. Epea: abenduak 15.

Aterpetxeak

• Zarautz, Orio eta Hondarribiko aterpetxeetan ur-tarrila eta abuztua bitartean plazak erreserbatzeko epea

zabalik dago. Tel. 423511.

Bekak

• Basozaintza, nekazaritza eta naturgune arloan profesionalak prestatzeko bekak. Baldintzak: 35 urte-tik beherakoa izan eta aipatu arloekin zerikusirik duen lizentziatura. Epea: abenduak 9.

• Ingurugiroari buruzko ikerketak burutzeko bekak. 750.000 PTAko dirulaguntza. 30 urtetik beherako li-

zentzietuei zuzenduak. Epea: abenduak 15.

Gazte txartela

• 91-92 denboraldirako Gazte Txartelaren balioa datorren denboraldirarte luzatuko da (martxoa ingurura arte).

• Bilbao hiria Pop-Rock 5. Lehiaketa. Sariak: grabaketa eta dirutan. Parte hartzeko, taldeak grabatutako maketa zein diska aurkeztu beharra dago. Epea: urtarrilak 8.

“Nonbait ohartzen zen, egun beltz hartan, zailtasun eta mixeriaz jositako adinean sartua zela, baina ezinezkoa zitzaion bertatik irtetzea noiz lortuko zuen imajinatzea.”

**A. MORAVIA
“AGOSTINO”**

**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

BERTSOAK

Arrazakeria

Munduan bete dira gorrotoz zokoak. Behartsu ibilera nola holakoak. Antza denez ez dira gure parekoak. Esbastikak badira era askokoak bistan bortitzak edo diplomatikoak.

Gurean ere sortu zaigu nahiko berdin, patata biltzen hona zetozenak fin fin. Etxeratu dituzte hartu bezain arin txakur argalak beti mila zorriekin. Nahiko ez al zen hona etortzearekin.


JON IÑAKI IZARZELAIA



Z E R N A H I A G O ?

Mark Kennedy

“La puerta al ingles” akademiako irakaslea



- **Ingelesa ikasteko metodarik onena?** Irakurriz, idatziz, entzunez, eta hitz egiten saiatuz.
- **Zenbat denbora daramazu Arrasaten?** Bi urte eta erdi.
- **Klaseak ingelesez ematen dira?** Bai, denak sartzen direnetik irten arte.
- **Nongoa zara izatez?** Jaiotzez Ingalaterrakoa, baina gurasoak Irlandan bizi dira.
- **Hemen ala han dituzu lan gehiago?** Toki bietan. Hemen ere asko iriteten dut.
- **Kirolrik egiten duzu?** Bai, futbola; baina oso jokalari txarra naiz.
- **Ze motatako musika gustatzen zaizu?** Reggea. Musika mota horretako talde asko ditut gustoko.
- **Ezagutzen dituzu hemengo mendiak?** Bai, asko gustatzen zaizkit gainera.
- **Hemengo jendea ala hangoa da jatorragoa?** Bietakoak, baina hemengoekin, noizean behin hizkuntza arazoak izaten ditut.
- **Gutun asko idazten duzu?** Bai, hartzen ditudanak baino gehiago.
- **Urtean zenbat aldiz joaten zara zure herrira?** Behin.
- **Horoskopoeetan sinisten duzu?** Ez, inoiz ere ez dut sinistu.
- **Diapositiba ala argazkia?** Argazkia, baina hala ere, ez ditut asko.
- **Ikusentzutekorik erabiltzen duzu klaseetan?** Bideoa, baina oso gutxitan. Kaseta bai, asko.
- **Ekologista zara?** Bai, horretan saiatzen naiz behintzat.
- **Erosketak egitea gustatzen?** Ez, ez daukat kotxerik eta oso neketsua da.
- **Soldaduzkaren alde ala kontra?** Kontra.
- **Ume batentzat jostailua?** “Don Quijote”ren liburua.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Asteroko eskaintza

Abenduaren 7tik
12ra bitartean

%15eko deskontua
SUDADERATAN

%10ekoa beste edozein artikulutan

EBAKI ETA ERABIL NAZAZU!!

Uriarte
SPORT

Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78
ARRASATE

Josemari Velez de Mendizabal

Bederatzigarren liburua gertu


Bere bederatzigarren liburua argitaratu du Jose Marik. "Yehuda" izenburupean, denbora librean idatzitako narrazioak jasotzen ditu. Kaleko jendeari zuzendutako liburua, literatura errazean idatzitako.

— Zeri buruzko liburua idatzi duzu?

— Jakingo banu! Ordenadorea etxera eramane nuen egun berean hasi nintzen liburua idazten. Liburuak ez du haririk jarraitzen, nire denbora librean ideiak sortu ahala idatzi egiten nituen. Idatzi ondoren, Itñaki Mendigureni bidali nizkion eta berak emandako aholku batzuk jarraituz, zertxobait moldatu egin nuen. Eta hortik atera da, hain zuzen, azken emaitza. Baina, esan bezala, aurretik gidoirik idatzi barik, izan ere bigarren atala hasi nuenean ez nekien zertaz idatziko nuen ere.

— Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Liburu hau konkretuki oso arina da, eta irakurleak ere igarriko du. Bestalde, neuri gustatzen zaidan literatura erabili dut idazteko, hau da, literatura erraza eta kaleko jendeak erraz irakurriko duena. Umorezko klabeetan idatzi dut gainera. Kasu konkretu honetan nire helburua ez da sekulako arrakasta lortzea izan, ezta asko saltzea ere. Bukatu nuenean, ez nekien publikatzea mereziko zuen ere.



— Argudio erreala da?

— Ez, "Yehuda"

izeneko liburuan argudioa ez da erreala baina agertzen diren izen asko bai. Zorionez edo zoritxarrez, asko bidaiatzen dut eta horren ondorioz denbora libre asko izaten dut, aireportuetan edo hegazkinean bertan. Momentu horiek aprobetxatzen ditut idazteko. Kontatzen den istorioa ere fiktizioa da. Salerosketako mundu honetan mugitzen garenok badakigu, armen trafikoa, diru beltza, eskupekoa,

"Irakurtzea eta idaztea, eguneko esne txarrari eman beharreko ihes-tuboa dira niretzat"

joku zikina eta antzeko kontuak askotan entzun ditugu eta pixka bat alde horretatik doa liburua ere.

— Gizon okupatua eta idazteko denbora...

— Esan dudan bezala denbora asko galtzen dut aireportuetan. Baina horretaz gain, egunero ematen diot ordu pare bat irakurtzeari eta beste hainbeste idazteariki. Nik dudan zaletasunik handiena horixe da. Eta nolabait esateko, "eguneko esne txarrari eman beharreko ihes-tuboa" da niretzat, beharrezkoa. Niretzat erabateko hobbya da idaztea, hortik ez dut besterik espero, ez naiz profesionala eta.

— Nola ikusten duzu Durangoko Azoka?

— Gaur egun, Bernardo Atxaga eta antzeko idazle handiei jarraitzen dien gazte loraldi bat dugula esan dezakegu, denbora gehiago dedikatzen diotenak eta preparamatuago daudenak. Horretaz gain, aurreko urteetan izan ez dugun aukeraketa ere badugu, lehen merkatuan zegoena irakurtzen zen baina gaur egun gustatzen zaiguna aukera dezakegu. Durangoko azoka gertaera bat besterik ez da nire uste. Berez, ondo dago irakurleok bertan biltzen garelako, baina gaur egun liburu bat erosteko ez da azokara joan beharrik. Alde horretatik, ez diot zentzu gehiegirik ikusten, urtean zehar egunero dugulako liburu bat erosteko aukera.


LABURRAK

Komiki lehiaketa

Bergarako JARDUN elkar-teak komiki lehiaketa antolatatu du. Lehiaketa honetan O.H.O.ko 6.mailatik gorako edozeinek har dezake parte. Adinaren eta formatoarean arabera hiru taldetan daude. Lanak aurkezteko epea abenduaren 14an bukatuko da. Lehen taldeko irabazleak, 6., 7. eta 8. mailakoek, 10.000 pezeta irabaziko ditu; bigarrenenok, 14 urtetik 18ra bitartekoak, 15.000 eta hirugarrenenok, 18 urtetik gorakoek, 35.000 pezeta jasoko dituzte.

Jose Mari Arizmendiarieta sariak banatu dira

Gizabidea Fundazioak antolatzen duen Jose Maria Arizmendiarieta lehiaketako sariak banatu ziren. Epaimahaia: Jose Maria Mendizabal, Jesus Garmendia, Jose Ramon Elorza eta Itziar Arana osatu zuten. Ekitaldi akademikoan, Dionisio Aranzadi, Deustuko Unibertsitateko errektore-ohia eta gaur egun, aipaturiko unibertsitateak Donostian duen egoitzako errektore ordeak, Arrasateko Kooperatiben esperientziaz mintzatu zen. Lehiaketako A mailan 11 lan aurkeztu ziren, eta B mailan, beriz, 26an.



ALDIZKARIAK

'QUIEREME,
QUIERETE'

Durango bezpera

"Quierete, Quiereme" izenburupean, Deba Garaiko HIES Ekimena taldeak, kolaboratzaile ugariaren laguntzarekin aldizkari bat kaleratu du. Dirudienez, aldizkaria urtean bi aldiz kaleratzeko asmoa dago, kalean jarriko diren mahaietan, tabernetan, eskoletan etab, dohainik banatzeko ahalik eta jende esparru zabale-nera irits dadin.

Aldizkarian, HIES-ari buruzko hainbat erreflexio irakur daitezke: pertsonalak, medikuntza arlotik zuzendutakoak, errealitatean oinarritutako literatur itxurakoak, gutunak, gaixotasunari aurre egiteko eman diren azken pausuei buruzko datuak, denborapasak, berri motzak, etab.

Era berean, HIESaren aurkako borrokan parte hartzeko gonbidapena luzatzen da "Quierete, Quiereme" aldizkariaren orrialdeetatik, edozein modutako laguntza onartzen dela jakinaraziz: ekonomikoa, aldizkarian parte hartuz, une jakinetan laguntza ematea, egunero lanean parte hartuz, ospitaletara bisitak eginez.... Informazio zabalagoa nahi izanez gero, 79 26 99 telefono zenbakira deitzea besterik ez dago.

Abenduaren hasiera alde-
ra, Euskal literaturaren paga-
diak eta pinudiak perretxikuak
legetxe hazitako nobedadez
josita agertu ohi zaizkigu, gero
liburuak eta diskak Duran-
goko azoka ospatzen den
Sortzez Garbiaren zubipean
metatzen direlarik. Bada aur-
tengoan eskas samarra izan-
go dela esaten duenik, baina
irakurtzen jarraituz gero kon-
turatuko zara, irakurle, uste
hori ustelxea dela.

"Emak Bakia Baita" tal-
deak (Ruper Ordorika, Ber-
nardo Atxaga eta enparauak)
"Gartziarena" izeneko orria
eta zenbait literatur itzulpen
kaleratuko ditu.

Joseba Sarrionaindiaren
Gartzelako poemak kalean
dira jadanik; ipuin laburrak
bilduko dituen beste bat ere
aterako du Elkarrek: "*Han
izanik, hona naiz*".

Poesiari dagokionean Xa-
bier Leteren *Benetako*
poema-bilduma izango
da Durangon, baita Luis
Berrizbeitia gazte biz-
kaitarraren liburu berria
ere. Juan Cruz Igerabide-
ren umeentzako poemak
ere, han izango dira: *Begi
niniaren poemak*.

Biziki gomendagarria
Antton Olariagak, bere per-
sonaia den Alukiss-en tirak
bilduz -eta idazle ugariaren

animalien gaineko istorioen
laguntzaz- osatu duen *Baso-
tik edanez* zoragarria. Era be-
rean, Gabonetako oparita-
rako, begiratu beharrekoa
Orhipean, Xamar-ek Pamie-
laren eskutik aurkezturiko
Euskal Herria ezagutzeko li-
buru politta: irudi pila, datu
eta istorio entretenitua eta jakin-
garri zenbait, aproposa nes-
katila mutikoentzako, eta de-
nori ere ondo datorkiguna.


Itzulpengintzak ere gogor
darrai, bai Ereinek Bartleby
saila zein Igela, zein literatu-
ra Unibertsalekoak (gutxienik
bost liburu berri kaleratuko
ditu Ibaizabalek Durangon).

Euskarak berak ere lekua
izango du azokako ma-
hietan: Euskaldunon
Egunkariak bere *Esti-
lo liburuak* kaleratuko
du (Administrazioak
ere, kaleratuko
omen du bere

balizko egunkarirako baliatu
nahi zuen antzerako lana:
erridikulo lotsagarrienaren
osteko hondakinak): *Euska-
raren Gramatika Deskripti-
bo* berria ere han izango da.

Argiaren urtekaria, Plaza
eta Mazantini aldizkariaren ale
berriak, Josemari Velez de
Mendizabal ezagunaren
nobela beltz bat, *Yehuda* ize-
nekoa. Gustu eta interes guz-
tzentzako liburuak beraz (eta
seguru kaleratuko denaren
laurdena ere ez dugula aipatu
aurtengo Durangokoan).

GERARDO MARKULETA



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



HAURTXOA

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

IZAGIRRE

barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86ARRASATE
HOTELA


Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

· AIPUA ·

“Nabiago dut eduki ezin dudana apreziatu, apreziatzeko gauza ez naizen zerbait edukitzea baino”

Orson Sweet Marden

· JEROGLIFIKOA ·



Nor etorri da?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8						
9						10
11					12	
13				14		
						15
16						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Udalpe eta Erguin kaleen artean. 8. Margo. 9. Zabalik. 11. Lokarritz arrastaka eraman. 12. Garo. 13. Nekazaritza. 15. Alde hemendik. 16. Jarleku.

Bertikalak 1. Sortalde. 2. Eskuratu. 3. Ilearn ordezko multzo artifiziala. 4. Mokil. 5. Ihardun. 6. Nafarroako udala. 7. Batu. 10. Iridioa. 14. (Ald.) Bizkaiko ibaia. 15. (Ald.) Errepikatuz hegazti mota.

· HOROSKOPOA ·

Aries Urtean zehar ongi portatu zarenez, opari ederrak izango dituzu gabonetan.

Taurus Planetek diotenez, auto istripuren bat izateko izugarrizko arriskuan zaude.

Gemini Bizitza guztia gurasoen kontura bizi izateko asmotan edo? Espabilatu!

Cancer Aste bikaina: maitasuna, dirua, lana... falta izango duzun bakarra, osasuna.

Leo Dentistak ez dizu batere berri onik emango. Okulistak ordea, guztiz alderantziz.

Virgo Ez dago zure begiek darioten maitasunari uko egin diezaiokeen gizakirik.

Libra Nahiz eta ez den zure astea izango, ez etsi; laster etorriko da zure zoriona.


Scorpio Azterketak gaizki egin dituzula uste izan arren, sorpresa on bat jasoko duzu.

Sagitarium Gehien gorrotatzen duzun pertsona munduko pertsonik maitagarriena irudiko zaizu laster.

Capricorn Neskalgunak utzi egingo zaituen arren, laster izango dituzu beste hainbat atzetik. Beraz, maitasun faltarik ez.

Aquarius Aste honetan ez zaizkizu bronkak, mehatxuak eta zorigaitzak faltako.

Piscis Ematen dizuten laguntza guztia pozik onartuko duzu, laguntza beharrean baizara.



UEUren III. ARRASATEKO IHARDUNALDIAK

Abenduak 10, osteguna
Arratsaldeko 6etan
Monterron Kultur etxean

PIRINIOETAKO HARTZA


Hartza dugu zalantzarik gabe, gure eskualdean bizi diren ugaztunen artean mito eta legenda gehien eragin dituen ugaztuna. Gure arbaso zaharrenetatik honantz, piztia sakratua izan da, eta makina bat errito eta sineskeria sortu da bere inguruan. Baliteke guzti honen arrazoia, baso ilunen batean itxura sendo eta antropomorfiko samarra duen plantigrado bikain hau ikusteak derrigorrez sortzen duen zirrara -edo ikararizatea. Bata dela zein bestea dela, hartzarekiko sentimendu bereziak bizirik dirau gure egunetan ere, eta indartu ere egin da agian, batik bat animalia desagertzeko arriskuan egonik bere inguruan sortzen den misterioa areagotu ere egin bide baita.

Hartza orain dela hamabi edo hamairu urte desagertu zen Euskal Herriko mendietatik, eta egun Nafarroako eta Zuberoaren arteko ekialdeko mugetan tarteka aleren bat edo beste agertzen bada ere, aurki erabat dasagertuko dela ziurta genezake. Izan ere, Pirinioetako hartzen populazioaren egoera kritikoa da egun: dozena bat inguru hartz bizi dira mendi-katea osoan; euren arteko isolamendua gero eta handiago da, eta ugaltzeko probabilitateak murriztuz doaz.

Hizlaria: **JOSE RAMON AIHARTZA**
Biologoa

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeko laguntzaz

• PEPE ARREGIREN GOMENDIOA •



Garai bakoitzak bere kronistak izaten ditu, gaur egun kazetariak. "Horiei jaramonik egin ezker, krisi moral iraunkorrean bizi garela ohartzen gara (Filesa, Guerra...). Baina hau ez da erabat berria, bestela Quevedoren 'El Buscón' (ber)irakurri eta Austriarren garaiko pikareska eta dekadentzia guztia ezaguna egingo zaizuela konturatuko zarete. Gehiago sakontzeko beste perla bat: 'Obras Festivas' bildumaren barruan 'prematikas, sátiras y desenfadados, lo Replús'".


• PROGRAMAZIOA •



Datorren astelehenetan eta asteartean ez da programaziorik egongo. Konstituzioaren eta Amabirginaren eguna direla eta, ATBn ez da emisiorik izango.

- 5 Larunbata**
 - 4 Pareak Jokuan.
 - 4.30 ATBketan
- 6 Igandea**
 - 7.30 ATB PUB
 - 8 Monterrock
 - 8.40 Mondragol
- 9 Asteazkena**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Bai horixe! Follow me
 - 7.30 Dokumentala
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.30 Tertulixan.
 - 10 Asteko zinea: Los Angeles bizi eta hil.
- 10 Osteguna**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Bai horixe! Follow me
 - 7.30 Dokumentala
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.30 ATBketan.
 - 10 Asteko zinea: Los Angelesen bizi eta hil.
- 11 Ostirala**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Bai horixe! Follow me
 - 7.30 Dokumentala
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.30 Monterrock.
 - 10 Asteko zinea: Los Angelesen bizi eta hil.

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

JEROGIFIKOA
Irakaslea.
Elikartu. 10. It. 14. Ael. 15. uk.
Iteorde. 4. Zokil. 5. Art. 6. Lertu. 7.
Bertikalak 1. Ektalde. 2. Lortu. 3.
Lurtan. 15. Ut. 16. Eserleku.
re. 9. Itekinik. 11. Arot. 12. Ira. 13.
Horizontalak 1. Elizalde. 8. Kolo-
GURUTZGRAMA

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

Erdiko kale. 79 19 37
ILEA
Ferrerias. 79 87 62

IBARRA
Garajea S.A.
EBRO NISSAN
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

NAROKI
Urrezko bitxiak
NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47



ZATOZ

AMOR BRUJO



Ikus Renault 19 berria, RTi 1.8i injekzioduna. Senti ezazu bere 113 CVen eta 1794 c.c.en sorginkeria. Lilura zaitzala bere ekipamendu ikaragarriak: serieko direkzio lagundua, aleazio arineko llantak, aire girotua, auto barruko ordenagailua eta sapaie elektriko mugikorra aukeran. Deskubritu ezazu bere segurtasun maila handia ABS aukerako sistema eta umeentzako jarlekua, aukeran bertsioren arabera.
Barruak eskatuko dizu. Liluragarria.

RENAULT 19 RTi
113 cv

Berria

Zain gaukazu:



MECA, S.A.

Arrasateko banatzailea